

500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

37

Udal Ikastolak gaia

Lan arriskuak
eta prebentzioa
elkarrizketa

Atzerriko enpresetan
lan-praktikak
Gehigarria

Harreman psikomotrizitatea
esperientziak

1999ko APIRILA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 37.34.03

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Abel
Ariznabarreta, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
AN^tZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Hik Hasi
(Hernaniko korrika txikia)

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.999/III/18

Kopurua: 3.500 ale

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

Udal Ikastolak.

Beste eskola eredu bat

15 **elkarrizketa**

Jone Darunbe eta Teresa Olivero

20 **Hezkuntzaren Gizarte GUNEA sortu da**

21 **gehigarria**

**Lanbide Heziketa. Atzerriko
enpresetan lan-praktikak**

Martuteneko Lanbide Heziketako institutua

28 **Ekarpena**

Azkenik klik 2.2 euskaraz!

Josu Ximenez Maia

30 **Esperientziak**

Harreman psikomotrizitatea

Irungo Udal Haur Eskolako hezitzaile taldea

33 **Berriak**

36 **Ekarpena**

Idazkera harmonikoak ahalbidetzen II

Irene Ibarra

39 **Praktikatzen**

Gorputza eta bitartekariak musikan (eta II)

Ana Etxeberria

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizueke

hik hasik ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

hik hasik

Zure harpidetza behar du



4.500 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea ezinbestekoa zaigu

harpide zaitetz!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.500 pezeta
Ipar Euskal Herria
180 libera

hik hasi

Euskal heziketarako
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160

LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

Egoera berria sortzeko nahia baino zerbait
gehiago somatzen da

A P I R I L A

e d i t o

r i a l a

A

spaldiko kezkak jira-biraka dabilta euskal hezkuntza munduan. Eguneroko lanetik sortutako kezkak dira. Eskolaren Hezkuntza Proiektuak hobe-

betzea galarazten dituzten trabak nolabait gainditu nahi dituztenak, zehazki.

Urte asko igaro da Frantzia eta Espainiako Hezkuntza Sistemak ezarri zirenetik eta ia konturatu gabe ohitura eta funtzionatzeko era konkretua markatu dute.

Azken berrogei urte hauetan gizartearekin batera eskola ere aldatzen ari da. Parte hartzeko gogoia du euskal gizarteak eta eskola komunitateak ere eskolako martxan zer esana izan nahi du.

Eguneroko lanean eragiten duten erabakiak urrunegi hartzen diren sentsazioa somatzen da.

Euskal gizarte oso bizirik dago. Euskal Herriko herri bakoitzean zenbat erakunde, elkarte, talde eta abar sortu eta gai desberdinei buruz lanean diharduela behatzea besterik ez dago errealtate honetaz ohartzeko.

Lan egin eta parte hartze nahi honek gehiegitan topo egiten du administrazioetatik eskaintzen zaigun goitik behe-

rako ereduarekin. Euskal Herriak bere funtzionatzeko eredia gorpuzten joan behar du. Historikoki jokatzeko izan duen estiloa eguneratu behar du eta munduari eskaini behar dio bere estilo berezi, ireki, aurrekoi, sortzaile eta parte hartzailea.

Administrazio eta giza-taldeen artean erabakia konpartitzeko kultura garatu egin behar da. Hau izan daiteke urtetan euskaldunok modu desberdinez bilatzen ari garen funtzionatzeko eta elkar bizitzeko estilo propioa. Denok eroso eta aberats senti gaitezkeen egoera berria.

Ildo honetatik, herri eta auzo guztietan Korrikak honelako zerbait sentiarazi digu. Non ez da, jada, Korrika Txikia antolatzen?

Euskadiko Eskola Kontseiluan autonomiaren gaia (erabakiak non eta nola hartu eta parte hartzea bete-betean ukitzen dituen) aztertzen ari da eta proposamenak luzatzera doa. Inaxio Oliverik irakaskuntza hobetzeko neurri batzuk plazaratu ditu eta autonomiarena horien artean. Jakina da neurri horiekin ez garela dagokigun kaira iritsiko, baina arraunkada berri bat izan daiteke bertara gerturatzeko.

Aire berria dabilela nabaria da. Ea denon artean, gure parte hartzearekin, euskaldunok eroso eta zorionsu sentiarazteko funtzionamendu estiloa gorpuzteko gai garen. Erronka gurekin dago.

*Jostorrazak
prest
hezkun-
tzaren
soinekoa
berritzeko*



“Ikasleak, orientatzaileak, irakasleak, gurasoak, politikoak... denak berea erreibindikatzen”

k r o n



A ereduaren birmoldaketa

Inaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak Erreforma hobetzeko hainbat neurri hartzeko asmoaren berri eman du, eta horien artean A eredia hobetzea edo sendotzea. Horretarako bi neurri aipatu ditu: alde batek, taldeen bikoiztea edo zatitzea euskararen ikasketa errazteko, eta bestetik, ikasleek ikasgaiaren bat euskaraz izatea. Orain arte A ereduaren zeuden euskara ikasgai bezala zeukaten eta gainontzekoa gaztelaniaz ikasten zuten.

Neurri hauek hartzearen beharrezkotzat jo du A ereduak bere helburua bete dezan, hots, ikasleak derrigorrezko ikasketak amaitu ondoren bi hizkuntzetan aritzeko gai izatea.

Neurri hauek kritika ugari jaso

dituzte alderdi espainiarren aldetik, baina Oliverik guztien azpian arrazoi politikoak daudela erdietsi du. Euskarazko irakaskuntzari lotutako edozer gauza ikuspegi politikotik planteatzen adierazi du eta ez ikuspegi pedagogikotik. Esanak esan, hemendik aurrera zer gertatzen den ikusi beharko da. Sendotze hau nahikoa izango ote da? Horrek bermatuko al du ikasleak elebidunak izatea?

Arestian aipatu bezala, A ereduaren birmoldaketarekin batera beste neurri batzuk ere hartzeko asmoa azaldu du Hezkuntza sailburuak, hauexek: Ertainetako irakasleen finkatzea, zentroen gestio-autonomia bultzatzea, sare kontzertatuaren gaineko akordioa bilatzea, Lanbide Heziketako Plana garatzeko neurriak bultzatzea, Ebaluaketa eta Ikerketarako Institutu ez unibertsitarioa sortzea, Antolakuntza eta jardunari buruzko arauak onestea, zentroak lotzeko sare informatikoa eratzea, zentro pedagogikoak berrikustea, ingelesaren ikasketa goiztiarraren proiektua ehun zentrotara zabaltzea, pizgarri ekonomikoak ematea hezkuntza berrikuntzan edo ikasle zailekin diharduten irakasleei eta zuzendaritzaren kudeaketa hobetzeko arautegia egitea.

Ipar Euskal Herriko eskola publikoetako eskola mapa aldatzen ari da

Pirinio-Atlantikoko departamenduan datorren ikasturterako eskola mapa prestatzeko bilerak egiten ari dira eta hautsak harrotu ditu. Pierre Polivkak ikuskariak eskola frantsesten kasuan 30 gela itxiko dituela eta 10 postu sortuko dituela adierazi du. Eskola elebidunetan, berriz, zortzi postu berri sortzeko nahikaria adierazi du. Neurri hauekin polarizazioa dator, ikastegiak elkartu eta haurrak herri handiagoetara bidertzea dakar eta honek barnealdeko eskola asko ixtea ekarriko du. Horregatik protestak egin dituzte, departamenduko gainontzeko irakasleek bezalaxe. Protesta hauetan gurasoak, irakasle frantsesak eta euskarazko irakasleak bildu dira. Hala ere, gutxik lortu dute Akademiak erabakitakoa aldatzea.

Bestalde, behin-behineko egoeran dauden irakasleak integratzeko lehiaketa berezi bat egingo da irailan. Ikas Bik interesgarritzat jo du, baina irakasleek guztien integrazioa eskatzen dute.

“Zergatik pentsatzen dute eskolek nahitaezkoa dela fantasia eta diziplinaren artean aukeraketa egitea gehien balio duena fantasia diziplinatua denean?”. (MARIO BUNGE)

ikasleak

Ikasleen erreibindikazioak D eredu eskatuz

Ikasle Abertzaleak taldeak hainbat mobilizazio burutu ditu bere eskaerak eta salaketak plazaratzeko. Lehendabizi, Lanbide Heziketako zentroetan kontzentrazioak egin dituzte D ereduaren hedapena eskatzeko. Gaur egun, Nafarroan eskaintzen diren 124 heziketa ziklotatik bi soilik dira euskarazkoak. Guztira 2.366 ikasle daude Lanbide Heziketan eta horietatik 14 bakarrik ari dira euskaraz, hau da, %0,59a. Gainera, hauen irakasleriaren egoera ezegonkorra da eta horrek egoera gehiago larritzen du. EAEn dauden 84 heziketa zikloetatik 23 ikas daitezke euskaraz, hots, %27,3a.

D ereduaren egoera larria salatzearaz gain, irakaskuntzako “kolonizazioaren” aurka ere mobilizatu da IA. “Kolonizazioak baditu milaka aurpegi. Ikasle Abertzaleok iraultzen!” lelopean burututako mobilizazioetan “hezkuntzako kolonizazioa” salatu nahi izan dute. “Euskal gazteria eta belaraldi berria eduki hezitzaile jakin batzuen arabera eta atzerriko hizkuntzan hezitzen da” IAko ordezkarien iritziz, “eta egoera hau ez da koiunturala, estatu espainiar eta frantziarrek diseinatutako hezkuntza sistemari lotutakoa baizik”.



Nafarroako orientatzaileak dekretuaren zirriborroaren aurka

Nafarroako ikastetxe publikoetako orientatzaileak hilabete mugitua izan dute. Nafar Gobernuko Hezkuntza Sailak beren funtzioak eta lan baldintzak arautuko dituen dekretu zirriborroa egin du eta beraiek ez daude ados bertan planteatutakoarekin. Lehenengo eta behin, zirriborroa egiterakoan beraiekin ez dutela hitz egin adierazi dute. Bestetik, orientatzaileen funtzioen definizio zehatzik ez dela egiten diote. Eta azkenik, zonaldeka eta sektoreka antolatutako oraingo egitura hausten duela. Hezkuntza Sailak orien-

tatzaileek ikastetxearen funtzionamendua barneratuta egon behar dutela diote, eta orientatzaileen kolektiboaren ustez orain arte bezala sektoreka eta zonaldeka mantentzeak autonomia eta efikazia handiago ematen du.

Kolektiboarekin batera, zenbait sindikatu ere zirriborroaren aurka agertu dira, STEE-EILAS, CCOO, LAB, ELA eta Afapna, hain zuzen ere. CSIF eta UGT, berriz, Administrazioaren proposamenarekin bat etorri dira. Dena dela, oraindik prozesua itxi gabe dago eta Eskola Kontseiluak ere ez du oraindik erabakirik eman honen gainean.

Beste erabaki bat bai hartu duela Eskola Kontseiluak: LOGSE-Batxilergoko azken bi kurtsoetan iraileko azterketak kentzea. Proposamen honen arabera, iraileko azterketak ekaina bukaeran egingo lirateke. Ikasturtea maiatzaren 21ean amaituko litzateke, ohiko azterketak maiatzaren 31ean, ondoren ekaineko lehen hiru astetan errekuiperaketa klaseak egongo lirateke ikasgaiak gainditu ez dituztenentzat, eta azken astean azterketak.

Momentuz, estatu espainiarreko 17 komunitate autonomoetatik, EAEn bakarrik egin da aldaketa hau. Nafarroan ere egingo da, baldin eta Eskola Kontseiluaren erabakia Hezkuntza Sailak onartzen baldin badu.

GAIA

Udaldaririk



Eskola publiko eta pribatuen arteko zatiketa edo banaketa egiten jarduten gara behin eta berriz. Badirudi bata edo bestea bezala definitu behar ditugula gure zentroak eta horiek direla dauden aukera bakarrak. Baina ez da horrela. Oartzunen udal ikastola eratzera doa eta Iruñeko udal ikastolek 20 urteko ibilbidea egina dute.

Udal ikastolak udaletxeen esku dauden eskolak dira. Betiko eske-metara mugatuz, ez dira pribatuak, ez delako kuotarik ordaindu behar. Baina ez dira ohiko publikoak, ez baitaude gobernuaren eskuetan, udalaren pean baizik.

Euskal Herrian udal ikastola egon dira eta badaude oraindik ere. Bilbon XIX. mendean hainbat udal ikastola sortu ziren. Iruñean duela 20 urte hasi zuten gaur egungo Amaiur, Axular eta Hegoalde udal ikastolek beren ibilbidea. Eta orain, berriki, Oartzunen abian jarri dute udal ikastolaren proiektua. Batzuen urteetako esperientzia eta lana eta besteen hastapena eta asmoa bildu nahi izan ditugu hemen.

astolak

Beste eskola eredu bat



Iruñeko Udal Ikastolak

Iruñeko udal ikastolen ibilbide ofiziala 1976an hasi zen. San Fermin ikastolako guraso talde batek seme-alabentzako euskarazko irakaskuntza nahi zuen, baina publikoa. Garai hartan eskola publikoetan ez zegoen Deredurik eta euskaraz ikasteko aukera bakarrik ikastolek eskaintzen zuten. Bada, hutsune hori betetzeko asmoz ekin zion guraso talde honek proiektu berri bati: udal ikastola sortzeari.

Bide luzea eta zaila izan zen hasi zutena. Nafarroako Diputaziora joz ez zegola ezer lortzerik ikusi zuten eta udal txerak jo zuten. Expe Iriarte Amaiur udal ikastolako zuzendaria hurbildu gaitu garai haietara: "Iruñeko udaletxean nahiko ezker-

tiarrak ziren zinegotzi batzuk zeuden eta haiengana joan ginen. Beraiei esker hasi ginen lokal zikin batzuetan eta besteek utzitako ikastetxeetan klaseak ematen. Hasi, hasi ginen, baina gure egoera ez zen batere ona. Behin eta berriz protestatu behar izan genuen klaseak kalean emanez, Gaztelu enparantzan protestak eginez, okupazioak eginez..."

Eraikuntza finko bat ez izateak udal ikastolaren sakabanaketa ekarri zuen, hots, haur guztiak ez zeuden leku berean, auzo ezberdinetan sakabanatuta baizik. Honek hasierako helburuari mesede egin zion, auzo guztietan udal ikastola bat izateari, alegia.

"Udalak ordaintzen ditu mantenimendua, atezainak... Iruñeko Lehen Hezkuntzako eskola guztietan bezala.

Irakasleriaren kasuan ez, beste eskola publikoko irakasleak Nafarroako Gobernuak direlako eta gu udaletxekoak"



Gora behera hauen guztien artean eta hamar urte igaro ondoren, 1987. urtean lortu zuten legalizazioa udal ikastolek. Horrek gaur egungo egitura finkatu zuen eta hiru udal ikastola gelditu ziren: Txantrean Axular, Arrosadian Hegoalde eta Donibane eta Iturrama artean Amaiur.

Ikasle kopuru handia

Proiektu berrian egonkortasun eta ziurtasun eza agerian izan arren, lehenengo ikasturtean, 1977/78an, 385 haur matrikulatu ziren, 1978/79 ikasturterako 750era igo zen kopurua eta 1986/87an 1.407 ikasle ziren. Beraz, garbi dago hasiera hasieratik ikasle faltarik ez dutela izan. Gaur egun Hegoalde eta Amaiurren 440 ikasle daude eta bi lerro dituzte. Axularren, bestalde, 250 ikasle dira eta lerro bakarra dute. Irakasleak, aldiz, 64 dira guztira.

Urte luze hauetan borrokak eta eskaerak ez dira amaitu. Nahiz eta hiru udal ikastola eratu, hasierako helburua beste auzoetan ere lortzea zen. Baina Iriartek gogoratzen duen bezala “udalaren jarrera itxi egin zen. Ez zuen udal ikastola gehiago nahi. Gure artean bi talde sortu

ziren: batzuk geneukanarekin nahikoa genuela esaten genuen, eta beste batzuk lerro gehiago zabaltzeko eta gehiago lortzeko borrokatu egin behar genuela. Baina azkenean ez zen gehiago lortu”. Hala ere, guraso batzuk borrokan jarraitu zuten eta Nafarroako Gobernuak D eredu eskaini zien Sanduzelaiko eskola publikoan.

Eskaintza barregarria izan zela dio Iriarte. “Eskola horretara ijito asko joaten ziren eta ez zen euskarazko lerroa irekitzeko lekurik proposena, baina hor eskaini egin zuen administrazioak. Gurasoak oso borrokalaria ziren, bazekiten zer nahi zuten eta gaur egun eskola indartsua da”. Gaur egun A eredu mantentzen dute ikasle gutxi batzurekin, nahiz eta aldamenen erdarazko eskola bat egon. “Izan ere, ez dute D eredu soil-soilik duen zentro bat eduki nahi”.

Egun eskaerak eginez jarraitzen dute, Bigarren Hezkuntzarik ez baitiote eman Erreformaren ondoren. “Gure egoera farregarria da” dio Iriartek. “Lehen Hezkuntzako zentro guztiak Bigarren Hezkuntzako zentro batera atxikituta daude, baina gu ez. Guk bi zentro ditu-

gu aukeran, Biurdana eta Iturrama, eta ikasleak bizi diren lekuaren arabera, libre dauden plazen arabera eta abar, zentro batera edo bestera joaten dira. Honek bi zentroekin koordinatzea suposatzen du guretzat, bi institutuekin egon behar dugu harremanetan eta horrek lana bikoiztu egiten du programazio aldetik, haurren jarraipena egiteko eta beste hainbat gauzatan. Horregatik, zentro bakar batera atxikitu nahi dugu”.

Udal ikastolen egoera juridikoa

Udal ikastolen ibilbidean zehar egoera juridikoa aldatuz joan da. Ikastolak munizipalak edo herrikoak izan arren, langile guztiak ez ziren udaletxeak. Batzuk udalaren pean zeuden, beste batzuk Diputazioak ordainduta, beste batzuk Nafarroako Gobernuaren eskutan eta beste batzuk gurasoen pean. 1979-80 ikasturtearen hasieran Euskara Bultzatzeko Udal Patronatua sortu zen. Patronatu honen gain geratu zen udal ikastolen funtzionamenduaren gestioa eta langileria-aren kontratazioa. Beraz, nahiz eta patronatua udalaren barruan egon, izaera independentea zeukan patronatuak bere eskuduntzak aurrera eramateko.

Beranduago patronatua desagertu egin zen eta langileak udaletxeak langile izatera pasa ziren. Horrela, udalak ordaintzen ditu mantentzen, atezainak... “Baina ez udal ikastolenak soilik. Iruñeko Lehen Hezkuntzako eskola guztien atezainak, mantentzen... ordaintzen ditu udalak” dio Iriartek. “Irakasle-riaren kasuan ez, beste eskola publiko irakasleak Nafarroako Gobernuak direlako. Baina nahiz eta gu udaletxeak langileak izan, guri ordaintzeko diruaren gehiengoa gobernutik jasotzen du udalak.

Beraz, kontzertatuta bezala gaude”.

Momentuz egoera nahiko egonkorra dela esan daiteke, baina urte hauetan guztietan udalaren jarreraren pean egon dira. Iriartek aipatu bezala hasieran udalak jarrera irekia agertu zuen, baina ondoren itxi egin zen eta ez zuen auzo gehiagotan udal ikastola gehiago sortzeko aukerarik eman. “Gainera, udalak beti bere gaintetik kendu nahi izan gaitu, arazo bilakatu gara berarentzat, batez ere langileok. Gu bere ardurapetik kentzeko bide bat aipatu izan da: udal ikastolak Nafarroako Gobernuaren eskuetara pasatzea eta Nafarroako Gobernuaren Haur Eskolak udalaren eskuetara”. Baina gobernua ez da ausartzen hori egitera. “Izan ere, gure lanpostuak dauden bezala mantentzen baditu, errekurtsioak izango ditu bere langileen aldetik, Iruñean lanpostu bat nahiko duen jende asko egongo baita. Eta gu ez gaude prest hori onartzeko”.

Udalak udal ikastolak bere gainetik kentzeko beste arrazoi bat ere badago: euskara. “Eskola hauek gaztelaniaz izango balira, udala gustura egongo zatekeen, prestigioa lortzeko aprobetxatuko zukeen: mugimendu progresista izan zen bere sorreran, pedagogia berri-tzailea erabiltzen da, gurasoek asko parte hartzen dute...”.

Udal ikastolaren abantailak

Iriarteri udal ikastolak eskaintzen dituen abantailak zein diren galdetu ostean, nagusienak aipatu dizkigu:

1- Irakasleria egonkorra da. Hasieran ezarri genituen funtzionamendurako arau eta ohiturak mantentzen ditugu: asko biltzen gara, hiru zentroyen artean harremanak ditugu programazioak elkartrukatzeko, proiektu asko egiten ditugu elkarrekin...

2- Partaidetza altua dugu eta klaus-

GAIA

Udal Ikastolak

Beste eskola eredu bat

troan denon artean erabakitzen diren gauzak aurrera ateratzen dira.

3- Gurasoen parte hartzea izugarria da, eta hasiera hasieratik. Garrantzi handia dute eta asko borrokatu dute ikastolaren alde.

4- Orain dela 20 urte irakasle gazteak eta ilusioz beteak ginen eta giro oso ona genuen. Urteen poderioz udal ikastolaren proiektua gorpuztea lortu dugu. Ilusioz egiten dugu lan, ez gara ikastetxe soil batera etortzen, bizitza duen eskolara baizik.

5- Udala Gobernua baino gertuago dago eta hori positiboa dela uste dut. Hurbiltasun horrek gauzak erraztu egiten ditu eskaerak egiteko orduan. Eta udalaren aldetik ere gobernuaren aldetik baino sentsibilizazio eta inplikazio gehiago egon daiteke.

“Udal ikastolaren abantailen artean irakasleria egonkorra, partaidetza altua, udalarekiko hurbiltasuna eta ikastolaren bizitasuna aipatuko nituzke”



Expe IRIARTE. Amaiur Udal Ikastolako zuzendaria

Oiartzungo Udal Ikastolaren proiektua

O iartzunen udal ikastola sortzeko nahia aspalditik zebilen udalaren, ikastetxeen eta gurasoen buruan eta hori bideratzeko Partzuergoa sortu dute. Datorren ikasturtetik aurrera 0-3 etapa eskainiko dute, eta poliki-poliki 0-18 urte bitarteko hezkuntza eskaintzera iritsi nahi dute.

Aldaketa nagusienetako bat udalaren parte hartze eta kudeaketa zuzena izango da. Udalak dirua inbertitu beharko du proiektu honetan, baina Oiartzungo udalak herritarrei zerbitzu hori eskaintzeko gogoia eta borondatea dituenek, udal ikastolako partzuergoa martxan da. Honek suposatzen duenez eta ekarriko dituen aldaketez hitz egiten aritu gara Jon Inarra Oiartzungo alkatearekin.

Proiektu berri bat martxan jarztera zoazte: udal ikastolarena. Orain gauzatzera badoa ere, ideia honen hastapenak duela lau urte hasi ziren. Zein planteamendu egin zen garai hartan?

LOGSE ezarri zenean eta Eskola Kontseiluarekin egon ondoren udalak herriko bi eskola nagusienekin eta hiru haurtzaindegiekin proiektu amankomun bat egiteko planteamendua egin genuen. Horretarako, ikastetxe hauen fusioa egiteko eta udal eskola publikoa sortzeko zein aukera zegoen ikusi behar zen, eta SIADECORI azterketa bat egiteko eskatu genion.

Zer aztertu nahi zuen?

Udal eskola sortzeko hainbat alderdi

aztertu behar ziren: juridikoki nola gauza zitekeen, ekonomikoki nola bideratu, funtzionamendu aldetik nola antolatu, funtzionarioekin zer egin... Hori guztia sakon aztertu zuen SIA-DECOK egoera aztertuz, kontsultak eginez, bost urtera zer gertatuko zen aurreikusiz eta abar.

“Argi dago proiektua aurrera ateratzeko irakasleek egin behar dutela lana. Ezin dute erosotasunean erori eta dena egina dagoela pentsatu. Gurasoak irabazi behar dituzte”

Eta zer ondorio atera zenituzten?

Juridikoki parlamentutik pasa gabe egin zitekeela aldaketa. Hau da, Eusko Jaurlaritzako kontseilariak ahalmena badauka nahi duenarekin konbenio bat egiteko, kasu honetan udalarekin. Baina, noski, horretarako borondate politikoa behar da, eta garai hartan ez zegoen.

Hori izan al zen proiektuak aurrera ez jotzeko arrazoia?

Ez arrazoi nagusia. Hasieran guraso eta irakasleak ados baldin bazeuden ere, Elizalde eskola publikoak ezezkua eman zuen azkenean eta orduan ez genuen aurrera segi. Proiektua ez zen ongi atera eta horretan utzi genuen.

Zergatik heldu diozue orain berriz?

Ikastolakoak eta haurtzaindegietakoak etorri ziren udaletxera proiektuarekin ezin al zitekeen jarraitu galdez, eta horregatik hasi ginen berriz.

Duela lau urteko proiektu hura eta oraingoa berdina al dira?

Ez, bada go azpimarratu nahi nukeen desberdintasun bat. Lehen udala izan bazen asmoa martxan jarri zuena eta karrotik tira zuena, orain ez da izango. Ikastetxeek proposamen bat egiten badigute, guk aztertuko dugu, baina ez da udala izango lehenengo pausoa emango duena. Ikastolak nola sortu ziren? Administrazioak dena erretiluan jarrita? Ez, borrokatuz eta lana eginez. Bada, orain ere gauza bera. Ez dugu administrazioak eta udalak eman zain egon behar, mugitu egin behar da nahi dugun hori lortzeko, mugitu, ilusioa jarri eta landu.

Zergatik hartu dugun jarrera hau? Bada, esperientziak erakutsi digulako jendearen atzetik ibiltzea oso txarra

dela. Zerbait egiten hasten bazara ez dakit zer maniobra politiko egin nahi duzula pentsatzen du, ez dakit zer nahi duzula... Guk, azken finean, Oiartzungo herriarentzat ona baldin bada, landu egiten dugu istorio bat, eta 0-18 urte bitartean udal ikastola edo eskola publikoa edukitzea ona zela pentsatzen genuen. Baina interesatue- nak irakasleak eta gurasoak dira, eta beraiek eraman behar dute aurrera proiektua, ez udalak.

Orduan, zer da orain egin duzue- na? Nola planteatu duzue orain- go proiektua?

Juridikoki udal ikastola sortzeko hiru aukera zeudela ikusi zen: fundazioa, elkarte edo partzuergoa sortzea. Hiru aukerak ikusita proiektu honetarako egokiena partzuergoa zela kontu- ratu ginen.

Partzuergoa egiteko garaian hiru elementu hartu dira kontuan:

1- Irekia dela. Nahi duena sar daite- ke bertan, orain edo aurrerago.

2- Titularitate eta ardura banatua du. Hau da, udalak ez ditu titularitate eta ardura osoa hartzen. Gurasoekin eta irakasleekin partekatu behar du, eta beste norbait ere sar daiteke: esko- la, Eusko Jaurlaritza...

3- Instituzioek osatzen dute partzue- goa, ez pertsonak. Instituzioak publiko- ak edo pribatuak izan daitezke.

Nork osatzen duzue par- tzuergoa?

Momentu honetan lau pertsonak osatzen dugu: bi udaletxeoak eta bi ikastolakoak.

Zer egingo du partzuergoak?

Partzuergoa aipatu ditugun titulari- tatea eta ardura bere gain hartzen joango da. Bere egitekoa herriko esko- lak elkartzeko, batzeko eta horren finantzaketa bilatzeko tresnak jartzea izango da. Prozesu hori erritmo azka- rrean edo mantsoan joan daiteke, hori gero ikusiko da. Udalak diru asko jarri

GAIA

Udal Ikastolak

Beste eskola eredu bat


behar du, baina proiektua martxan jarri nahi du. Momentuz 0-3 etapare- kin hasiko da.

Partzuergoa oso goian egongo den zerbait izango da, Elkarte Anonimo bateko Administrazio Kontseilua bezala. Zein marko onartzen duen esango du, oinarrizko elementuak zehaztu, alegia. Adibidez, hizkuntzak euskara izan beharko duela. Orduetegi eskolarraz ere arduratuko da, hau da, horren kostua bere gain hartuko du, baina beste zerbitzuez ez (jangela, garraioa...). Agian gestionatuko ditu, baina ez finantzatu.


Udalarentzat diru asko suposa- tuko duela aipatu duzu. Zein gastu izango ditu eta nola finan- zatuko ditu?

Alde batetik eskolen mantenua, eraikuntzak... suposatzen duten gastua dago, eta bestetik langileria. Honi

“Partzuergoa- ren egitekoa herriko eskolak elkartzeko, batzeko eta horren finantzaketa bilatzeko tresnak jartzea izango da”



Jon IÑARRA. Oiartzungo alkatea



dagokionez, Eusko Jaurlaritzarekin konbenio bat egin nahi da. Horretarako berak jartzen dituen ratioak eta baldintzak errespetatu behar ditugu.

Zer gertatuko da oraingo ikaste- txeen egiturarekin? Hiru haurtzain- degi daude gaur egun...

Bai, hala da, hiru daude: udalarena den Iturburu eta Kokile eta Ttipi-ttapa pribatuak. Pribatuak etorkizun beltza ikusten zuten: haur kopurua jeisten ari zen, kuotak igotzen... LOGSEren eraginez desagertzeko bidean zeuden eta guk prozesua pixka bat aurreratu egin dugu. Beraz, haurtzaindegi hauek desagertu egiten dira eta hiruren artean udal haurtzaindegi berri bat sortu da, batu egin dira hirurak.

Zer gertatu da bertako irak- asleekin?

Egoera ezberdinean dauden irakasleak daude: funtzionarioak, kontratatuak, pribatuetakoak... Kasu bakoitza aztertu behar da, baina argi daukagu partzuergoak ez duela eszedenterik bere gain hartuko. Dena lupaz begiratuko dugu eta haurrik ez badago, langabezira joan beharko dute beste langile guztiak bezalaxe. Udalak ordaintzen duela pentsatuz ezin dugu dena konpondu. Bideragarritasunik ez bazaio bilatzen, proiektua ez da aurrera aterako.

Gainontzeko irakasleak zein egoeratan egongo dira?

Lau funtzionario daude eta horiekin ezin dugu ezer egin, beti ordaindu egin behar diegu. Baina partzuergoan sartzen den gainontzeko irakasleria ez da funtzionarizatuko, ez baita eredurik egokiena. Momentu honetan bost lurraldetan soilik dago sistema hau eta Italian, esaterako, kentzen ari dira. Funtzionarioak behar dira, baina lanpostu konkretu batzuetarako, eta ikas-tetxeetan ez, mentalitate horrekin ezin baita inongo proiekturik aurrera atera. Orduan, haurrik ez badago, lanik ere ez. Beraz, ikusi egin beharko da zergatik ez dagoen haurrik.

Horrek zer esan nahi du? Irakasleek lan egin beharko dutela. Gurasoek aukeratzen dute haurra nora bidali, beraz, gurasoak irabazi behar dira, kalitatea eskaini behar zaie.

Elizalde eskola publikoak par- tzuergoan sartzea erabakitzen badu, zer gertatuko da bertako funtzionarioekin?

Horiek funtzionario bezala sartuko lirake, baina gobernuko funtzionarioak dira. Partzuergoak konbenio bat egingo luke Eusko Jaurlaritzarekin proiektua aurrera eramateko, lehen esan dudana bezala. Hor jasoko litzateke funtzionarioen egoera ere. Irakasle funtzionarioen eszedente bat baldin balego, Eusko Jaurlaritzak beste leku batean emango lieke lana. Dena konbenioaren eta borondate politikoaren baitan dago. Juridikoki bideragarria da. Udalak konbenio horretan diru kopuru bat jarri beharko luke beste herriek ez bezala, baina horretarako prest gaude. Dena dela, oraindik ez dugu konbenioarik egin eta hori zehaztu gabe dago.

Bideragarritasuna aurkitzea funtsezkoa da.

Bai. Gauza bat da proiektua martxan jartzea, baina aurrera egin dezan ezin dira erabakiak edonola hartu. Aurretik zenbat diru jar dezakegun erabaki behar da eta horrekin noraino

iritsi gaitzkeen. Kontziente izan behar dugu erabaki bat hartzen dugunean nondik aterako dugun dirua. Ezin da gustatzen zaizuna soilik egin, bideragarritasuna ikusi behar zaio.

Udalarentzat gastua suposa- tzen du honek guztiak eta hala ere aurrera egin nahi duzue. Zer abantaila ditu, bada, udal ikasto- la publikoaren proiektu honek?

Sistema hau askoz ere partehartzaile-agoa eta dinamikoagoa dela pentsatzen dugu, eta merkeagoa ere izan liteke, gestioa askoz zuzenagoa delako.

Eta langileria ere gehiago inpliketzen da. Lehen esan dudana bezala, gurasoak irabazi behar dituzte eta horretarako lana egin behar dutela konturatu behar dute. Argi dago proiektua aurrera ateratzeko beraiek egin behar dutela lana. Ezin dute erosotasunean erori eta dena egin dagoela pentsatu. Proiektua landu egin behar da, gurasoei formazioa eman behar zaie, beraien haurra ondo dagoela erakutsi, kalitatezko hezkuntza eskaintzen zaiela eta antolaketa egokia dagoela ikustarazi, jendeak gogoz eta ilusioz egiten duela lan erakutsi... Udal ikastolak hori lortzeko aukera ematen duela uste dut, baina lan eginda.

Eredu berri honek, udal ikasto- la edo eskola publikoak, orain arteko eskola publiko-pribatu eredua gainditzea al dakar?

Azken finean honek esan nahi duena da Buesak martxan jarri zuen proiektuarekin eta Oliverik errematatu duenarekin hautsi egin behar dela.

Eskola mota berri bat izan al daiteke?

Ez dugu horretaz pentsatu oraindik. Proiektu alternatiboak eta esperientzia pilotoak egitea ona dela uste dut eta ezker abertzalearen egitekoa hori dela. Esperientzia hau Oiartzunerako egokia dela uste dugu. Beste lekuetara zabaltzeko egokia izango ote den? Hemen ondo ateratzen bada agian beste herri batzuetarako balioko du eta agian ez, ez dakit.

elkarriketa

JONE DARUNBE ETA TERESA OLIVERO



“

Prebentzioaren aldeko kultura sortu behar da eta hor hezkuntzak duen zeregina garrantzitsua da

”



Teresa OLIVERO



Jone DARUNBE

JONE DARUNBE
TERESA OLIVERO



**“Gure
erronka lehenengo
gaixotasunak
ezagutzea da, gero
arriskuak ikustea
eta ondoren
prebentzio
neurriak hartzea.
Azken batean,
lan arriskuak
ekiditeko bide
bakarra
ezagutzea
da”**

Sindikalgintza arlo ugari jorratzen badira, horietako bat lan osasunarena da. Beste sektoreetan bezala, irakaskuntzan ere badu garrantzia. Lan Arriskuen Prebentziorako Legea egon badago, baina bere ezarpena ez da gauzatu. Hori bultzatu eta bideratzeko ahalegina egiten ari dira sindikatuak. Besteen artean Jone Darunbe eta Teresa Olivero EILAS sindikatuko ordezkariak horretan ari dira. Irakaskuntzako lan osasuna, lan arriskuak, prebentzioa, legea eta beste hainbat kontu izan ditugu hizpide.

Azken urteotako erronka nagusietako bat lan osasunarena izan da zuen sindikalgintzaren barruan. Zerbateko garrantzia du?

Jone Darunbe. - Lana baldintza batzuetan egin behar da, ez edonola. Izan ere, lan baldintzek eragina dute gure osasunean. Dauden arrisku gehienak kendu, konpondu edo gutxitu daitezke. Gaur egun gogorra da jendea aldamiotik erorita hiltzen dela jakitea. Arrisku horiek ezagutzen ditugu eta neurriak hartuta egon beharko lukete. Beste arrisku batzuk ez dira ezagutzen eta ezagutu egin behar dira neurriak hartu ahal izateko. Heldu beharreko erronka zela uste genuen eta horretan gabiltza.

Nolakoa da irakaskuntzako langileriaren lan osasun egoera beste sektoreekin konparatuta?

Jone. - Gure alorrean arriskuak eta beroiek sor ditzaketen osasun kalteak ez dira eraikuntzan daudenak bezalakoak eta askoren ustez irakaskuntzan ez dago lan arriskurik, ezta lanak sortutako gaixotasunik ere. Baina hori ez da horrela. Askotan ezkutatuta egon arren, arazoak egon badaude.

Dena dela, ez da ahaztu behar irakaskuntzaren barruan lan mota ezberdinak daudela: irakasleak, bulegariak, heziketa bereziko auxiliarrak, garbitasunekoak, jangelakoak... Haur Eskolatik hasi eta unibertsitatera bitartean. Kontratu aldetik ere lan baldintza ezberdinak daude: funtzionarioak, lan legezkoak... Lanpostu bakoitzeko lan arriskuak eta gaixotasunak

ezberdinak izan ohi dira.

Beraz, lehenengo zein lanpostu eta zein lan dauden ezagutu behar dugu, hau da, lehendabizi non gauden eta zein arrisku ditugun jakin behar dugu.

Zein dira irakaskuntzako langileon ohiko gaixotasunak?

Teresa Olivero. - Egin diren ikerketen arabera, batez ere buruko arazoak, giharhezurretakoak eta disfoniak pairatzen ditugu. Gaixotasun otorrinolaringologiko eta psikiatrikoak beste alorretan baino ugariagoak dira. OITek, Unescok eta espainiar estatuko arartekoaren txostenek irakasleriengan estresak duen eragina ere azpimarratu dute.

Jone. - Diafoniak oso ugariak dira gure artean. Ahotsa gure lan tresna da eta askotan ez dakigu nola erabili. Gelako zaratak, hautsak, kutsadurak, giro lehorregiak eta formakuntza faltak sortzen dizkigu diafoniak.

Bestalde, estresa zergatik sortzen da? Lan baldintzengatik: lan finkotasun falta, beti errezikatzen egon beharra, pertsonekin lan egiteak dakarren sentipen eta buru zama handia, gaztakak, kezakak, lan jardunaldi luzeegiak, onarpen sozial urria...

Lan baldintza hauez gain, kontuan hartu behar dira lanetik kanpokoak: lanegun bikoitza, denboraren erabilera eta abar.

Gaixotasun hauek laneko gaixotasun bezala kontsideratzen al dira?

Jone. - Ez, momentuz ez, eta horregatik ari gara kanpaina bat egiten. Laneko gaixotasun bezala kontsideratzeko taula bat hartzen da erreferentzizat. Bertan agertzen direnak laneko gaixotasunak dira eta agertzen ez direnak ez. Agertzen ez badira eta lanean sortutako gaixotasunak izan arren, gaixotasun arruntak kontsideratzen dira.

Hori dela eta, kanpaina honetan gaixotasun horiek lanekoak bezala onartuak izan daitezken eskatzen ari gara. Sinadura bilketa egiten ari gara Osakidetza, Lan Ikuskaritza... bidaltzeko.

Bestalde, lan arriskuei dagokienez, zein da zuen asmoa?

Jone. - Gure erronka lehenengo gaixotasunak ezagutzea da, gero arriskuak ikustea eta ondoren prebentzio neurriak hartzea. Azken batean, lan arriskuak ekiditeko bide bakarra ezagutzea da. Argi eduki behar dugu lana egiterakoan gure osasuna ez dugula saldu behar.

Lehenengo gaixotasunak ezagutzea aipatu duzue. Ez al dira bada, ezagutzen dagoeneko?

Jone.- Emakumeen gaixotasunak ez dira ezagutzen. Langileen osasuna ikertzerakoan betidanik gizona eta gizonak jasaten dituen gaixotasunak hartu dira eredu-tzat. Pixkanaka emakumea ere kontuan hartzen joan da, baina irizpide berdinak jarraituz, txosten berdinak betez, hau da, emakumeak ezberdin gaixotzen garela kontuan hartu gabe.

Horregatik, badira emakumeenak diren gaixotasun batzuk eta ezkutuan matendu direnak. Horiek ezagutu behar ditugu.

Teresa.- Adibidez, orain arte pentsatu izan da gizonetakoak zirela bihotzeko gaixotasunez hiltzen ziren gehienak, eta momentu honetan badirudi emakume dexente hiltzen direla. Zer gertatzen da? Gizon batek bihotzekoa duenean berehala kontrolatzen dela badakitela zer egin. Baina emakumeon kasuan, egiaztatu da batzabeste bost ordu beranduago iristen garela ospitalera eta berandu hartzen gaituztela. Ondorioz, post-infartuan gizonetako %20a hiltzen da eta emakumeetako kasuan %60a igotzen da portzentaia.

Gaixotasunak ezagutu ondoren arriskuak detektatu behar dira. Nola egin hori?

Teresa.- Arriskuen Ebaluazioa egin behar da horretarako eta lehen pausoa Arriskuen Identifikazioa da. Hori galdeketa baten bidez egiten da. Unibertsitatean, esaterako, galdeketa hori egin da.

Nork egin du?

Teresa.- Prebentzio Zerbitzuak egin du. Zerbitzu hau Arriskuen Prebentzioa aurrera eramateko legean aurreikusten den zerbitzu bat da. Enpresako sendagileak, enpresako ATSak eta Prebentziorako bi teknikok osatzen dute. Sindikatueta ordezkariek hauekin batera galdeketa burutu genuen.

Euskal Herriko Unibertsitateak guztira 30 zentro inguru ditu, osotara 4.000 langile, eta ezinezkoa zen guztiei galdeketa pasatzea. Horrela, bost zentrotan hasi gara eta dagoeneko lau zentrotako identifikazioa bukatu da. Momentu honetan Prebentzio Zerbitzua emaitzak ateratzen ari da.

Hau lehenengo pausoa da. Behin identifikatu ondoren, ezaba daitezkeen edo ez ikusten da.

Hori prebentzioa izango litzateke. Nolako izan behar du prebentzioak? Zer neurri hartu behar dira?

Jone.- Arriskuak eta prebentzio neurriak zehaztea ez da zeregin neutroa, langileen eta enpresariaren artekoa baizik. Horregatik, prebentzioa negoziatu egin behar da. Langileok ezagutzen duguna eta daukagun esperientzia aintzakotzat hartu gabe ez dago prebentzio eraginkorra diseinatzetik. Langileen parte hartzea eta inplikazioa oinarritzat ez duen prebentzio plan oro, alde aurretik porrot eginda dago.

Teresa.- Legearen arabera, enpresa guztiek Prebentziorako Delegatuak eduki behar dituzte eta baita Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordea ere. Hori bete dadin saiatu behar dugu.

Zein da Prebentziorako delegatu baten zeregina?

Teresa.- Ekintzaile aktiboa izan behar du. Arriskuak zehaztu behar ditu lantokiak eta lanpostuak bisitatuz eta modu sistemikoan langileen iritziak bilduz. Somatutako arazoaren garrantzia aztertu behar du, legeak eta teknika kontuan hartuz. Langileak informatu behar ditu, aholkuak eman, eta egoera hobetzeko proposamenak kaltetutako pertsonekin eztabaidatu. Lan Ikuskaritzaren eta arriskuen ebaluazioa burutzen duten teknikarien bisitaldietan parte hartu behar du eta bere iritziak beraiekin kontrastatu. Somatutako arazoak konpontzeko bideak proposatu behar ditu, eta hartu behar diren neurriak enpresarekin negoziatu.

Prebentzio neurri hau nahikoa dela uste al duzue?

Jone.- Ez, horrez gain prebentzioaren aldeko kultura sortu behar da eta hezkuntzak duen zeregina garrantzitsua da kultura hori sorteko. Horretarako, alde batetik titulazio espezifikoak sortu behar dira, eta bestetik, eta garrantzitsuagoa dena, prebentziorako kultura hezkuntza maila guztietan sartu behar da.

Zer da prebentzioaren aldeko kultura?

Jone.- Prebentzioaren aldeko kultura norberak bere gorputza ezagutzea, estimatzea, babesteko zer neurri har ditzakegun jakitea, aisialdian nola erabil dezakegun jakitea, gure lana nola bete dezakegun jakitea, guregan zer eragin izan dezakeen ezagutzea... da. Garbi dago gure bizitza estiloak ere eragina duela gure bizi kalitatean: tabakoak, alkoholak, abiadurak... Hori ere norberaren zeregina da. Ezagutza horrek jarrera aktibo batean jartzen gaitu eta gure osasuna ez dela saltzen erakusten digu.

Zer suposatzen du prebentzioaren aldeko kulturak hezkuntzan? Nola lan daiteke?

Jone.- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan erabiltzen diren zenbait testuliburutan ez da gai hau zaintzen eta haurrek normaltzat har dezakete irudietan ikusten dutena, hots, langileak kate-produkzioan aritzea babeserako neurri edo tresnarik gabe edota segurtasun neurriak erabiltzen ez dituzten garabiak maniatzea.

Teresa.- Unibertsitatean edo Lanbide





“Argi
eduki behar
dugu lana
egiterakoan
gure osasuna
ez dugula
saldu
behar”

Heziketan dauden segurtasun eta higieneari buruzko ikasgaiak garrantzirik gabekoak dira, eta ikasketa planetan hutsaren hurrengoa baino ez dira.

Jone.- Egoera honi buelta eman behar diogu. Gaur egun enpleguaren behin-behinekotasuna da laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko oztoporik handiena. Horregatik, orduan eta garrantzitsuagoa da gizartean prebentzioaren aldeko kultura egotea eta lan merkatura heltzen diren pertsona guztiak aldeztetik kontzientziatuta egotea, osasuna ez dela saltzen jakitea, alegia.

Jakina da hezkuntzak ez dituela gizartean dauden arazo guztiak konponduko, baina badugu zer esana edo zer egin. Prebentzioaren kultura curriculumaren barruan sartu behar da. Beste zeharlerro batzuk lantzen diren bezala (hezkidetzak, ingurugiroa, kontsumoa...), prebentzio kultura ere nahitaez sartu behar dela uste dugu.

Arriskuen detektatzea, prebentzioa... neurri hauek denak betetzen diren ala ez kontrolatu beharko da, ezta?

Teresa.- Bai, ebaluaketak eta kontrolak egin behar dira. Hartu diren neurriak egokiak diren ala ez ikusi behar da. Gainera lan baldintzak aldatu egiten dira elementu berriak sartzen direlako edo jendea aldatzen delako, eta faktore pertsonalak ere kontuan hartu behar dira (espektatiba pertsonalak, prestakuntza...).

Kontrola sindikatuek egin dezakete. Langileen ordezkariok batzorde guztietan parte hartzeko eta dauden agiri guztiak ezagutzeko eskubidea dugu.

Lehen aipatu duzuen ez unibertsitatean arriskuen identifikazioa egiteari heldu zaio, baina irakaskuntza ez unibertsitarioan ez. Zergatik hori?

Jone.- Oraindik legea ez delako martxan jarri. 1995ean sartu zen indarrean Lan Arriskuen Prebentzioarako Legea. Europar Batasunak agindutakoa baino hiru urte beranduagoa heldu da eta bere ezarpena motel baino motelago doa. Otsailean bete dira hiru urte legea onartu zela. Lotsagarria da administrazioak berak ezarri gabe edukitzea. Berak legea betetzen ez badu, moralki zer indar eduki dezake beste enpresa edo ikastetxe pribatuei bete dezaten eskatzeko?

Zer dio legeak?

Jone.- Langileok zein eskubide ditugun dio eta nola parte hartu behar dugun geure

osasuna babesteko. Lan arriskuak ebaluatzeko eta aztertzeko neurriak jartzen ditu, non nagusiek eta langileok parte hartzen dugun. Horretarako hiru tresna jartzen ditu: Prebentzioarako Zerbitzua, Lan Ikuskaritza eta Prebentzioarako Debatua. Bakoitzak dituen funtzioak zehazten dira.

Teresa.- Lehenengo batzorde bat eratu behar da. Horrek delegatuak izendatuko lituzke eta aipatu hiru tresna martxan jarri.

Zergatik ez da ezarri oraindik legea? Zergatik ez dira osatu zerbitzu horiek?

Jone.- Egia esan, borondaterik ez dagoela pentsatzen dut. Iaz bilerak egiteko eskaera ugari egin genizkion administrazioari baina ez genuen ezer lortu. Aurten ere ez dakit zenbat aldiz eskatu dugun eta salaketak ere agertu dira prentsan. Hitz onak esaten dizkigute beti, asmoa badutela...

Martxa honetan garbi dago aurten ere zaila izango dela arriskuen ebaluaketarekin hastea. Baina lehenengo batzordea eratu behar da, funtzionatzeko irizpideak jarri...

Nafarroan zerbait gehiago egin da. Akordio batera iritsi dira eta legeak aurreikusten duen batzordea eratu dago. Debatuen prestakuntza ere martxan dago.

Teresa.- Badirudi unibertsitateak has-teko borondatea eduki duela, baina kosta zaio honi ere. 95ean legea onartu zenetik Prebentzio Zerbitzua sortzera ia hiru urte pasa dira. Segurtasun eta Higiene Komitea eratu ondoren, komitearen funtzionamendu araudia onartzeko urtebete egon ginen. Beraz, dena luzatu egiten da eta gauzak oso motel egiten dira.

Zergatik borondate eza hau?

Teresa.- Nik uste dut batez ere diru arazoengatik dela. Galdeketa bat pasa eta erantzunetan ordenagailuen mahai guztiak baldintza txarretan daudela erantzuten badute, horrek egokitzeko dirua gastatu behar dela suposatzen du. Azkenean, arazo ekonomiko bihurtzen da.

Eta sentsibilitate falta ere badago. Badirudi irakaskuntzan ez dagoela arriskurik eta ez dela inor mugitzen.

Hori ikastetxe publikoei dagokienez. Zer gertatzen da pribatuetan, hau da, administrazioaren esku ez dauden zentroetan?

Jone.- Pribatuetan ere denetik dago. Batzuk ihes egiten saiatzen dira, eta administrazioan gertatzen ari dena ikusita, nor-

mala da. Beste batzuetan, berriz, hainbat gauza egin dira, baina askotan beste elementu batek bultzata: kalitatea lortzeko ahaleginak. Hau da, kalitatea lortzeko hainbat baldintza eta arau bete behar dira eta horietako bat lan osasunarena da. Horregatik lan arriskuen ebaluaketak era ezberdinetan egin daitezke; ikastetxeko tramite bat bezala edo benetan langileon osasuna babesteko.

Zentro batzuetan ebaluaketak egin direla aipatu duzue eta unibertitatean ere galdeketa egin da. Nolako harrera jaso du langileon aldetik? Interesik edo ardurarik ba al dago gai honen inguruan?

Teresa.- Unibertitatean hasieran jarra ez zen oso ona ehun galdera baino gehiago zituelako galdeketa. Galdera gehiegi zirela zioten, baina ondoren %30ak edo erantzun du eta ongi dago. Egia esan, sindikatuok ere inplikatu gara. Langile bakoitzari orri bat bidali genion galdeketa zertaz zihoan azaltzeko. Beste bultzada batekin gehiagok erantzungo dutela espero dugu.

Jone.- Agian ez dugu nahi genuen adinako erantzuna jaso, baina nahiko jarrera positiboa dagoela uste dut. Lehen aipatu dugun kanpainan ikastetxe dexentek sinatu dute. EILAS bezala, urtean zehar Lan Osasunari buruzko aldizkariaren zenbait ale kaleratzeko konpromisoa hartu genuen gure hausnarketak zabaltzeko, informazioa emateko, legeak dioena azaltzeko... eta harrera ona izan du. Nik uste dut interesa eta kezka badagoela.

Inguruko lurraldeetan zein egoeratan daude?

Jone.- 95eko Legea Europa mailakoa da eta lurralde bakoitzeko ezarpena erritmo ezberdinean doa. Hala ere, ez dago oso aurreratua eta horren erantzuna egunero jasotzen dugu zoritxarrez. Hogei minuturo langile bat hiltzen omen da eta minutu bakoitzean 70-80 zauritu.

Kataluinatik Carmen Valls medikua gonbidatu zenuten. Nor da emakume hau?

Jone.- Carmen Valls medikua da eta Bartzelonako CAPS (Centro de Análisis y Programas Sanitarios) erakundearen egiten du lan. Emakumea eta osasunaren inguruan ikerketa ugari egiten ditu eta nazioarteko kongresuetan ere parte hartu izan du.

Teresa.- Erakunde hau Kanadako, Sue-



diako eta beste lurralde batzuetako erakundeekin harremanetan dago. Sare bat osatzen dute eta Interneten bidez eztabaidak zabalik mantentzen dituzte.

Zer ekarpen eskaini zuen bere hitzaldian?

Jone.- Gure hausnarketak egiteko beste elementu batzuk eskaintzen zituela ikusi genuen eta hori izan zen gonbidatzeko arrazoia. Guretzat, CAPSek egin dituen ikerketen artean interesgarrienak bi dira. Lehenengoa estresaren inguruan egindako galdeketa bat da, estresa generoen ikuspuntutik nola jasaten dugun ikusteko. Katalunia mailan egin duten galdeketa da. Eta bigarrena bukatu berri duten gida bat. Emakumeok irakaskuntzan jasaten ditugun arriskuak ezagutzeko eta ebaluatzeko gida da. Kasu honetan, Kanadako eta Suediako datuak alderatuz osatu dute. Gainera, badirudi horrelako gidaren artean lehenengoa dela, aurretik ez baitzegoen antzekorik.

Oraindik argitaratu gabe dago gida. Hemen Emakunderen bidez argitaratzea nahi dugu.

Atera dituzten ondorioez arituko zen hitzaldian. Zer zen transmititu nahi izan zuen ideia nagusia?

Jone.- Emakumezkoak eta gizonezkoak ez gabela berdin gaixotzen. Horretarako arrazoi biologikoak badirela esan zuen, baina ez horiek soilik, baita fisiologikoak, hezkuntzakoak, kulturalak eta sozialak ere. Faktore hauen artean sar daitezke emakumeok betetzen ditugun rola, lanaldi bikoitza, gizarteak egiten dizkigun eskakizunak, behin eta berriz frogatu beharra gauzak egiteko gai gabela... Langabezia dagoen gehiengoa emakumezkoa da, behin behinekotasuna ere ugariagoa da emakumezkoen artean, prekaritatea ere altuagoa

da... azken finean, elementu hauek guztiek eragina dute gure osasunean.

Nolabait gizartean dauden bizitzeko modu eta rol ezberdinek eragina badute gure osasunean. Bizitzeko eta gaixotzeko modu ezberdina dugu emakumeok eta gizonek.

Egiten ari diren eta ari zareten ikerketak eta gauzak aldatzeko ahaleginak ikusita, aurrera begira, nola ikusten duzue etorkizuna?

Teresa.- Lanak bide honetatik joan behar du, baina beste erronka bat ere badugu: langabeziari aurre egitea. Izan ere, dena lotuta dago. Lanik ez dagoen momentu batean zaila da dagoen lana baldintza hobean lortu nahi izatea. Nola eskatuko duzu makina bat ezartzea datorren astean bost kalera bota behar badituzte? Baina, hala ere, ezin dela alde batera utzi pentsatzen dugu.

Jone.- Dударik gabe guztion erronka izan behar du horrek. Ez lanak gure osasunean duen eraginagatik soilik, baita ingurugiroan daukanagatik ere. Mundua edo natura aldatzen goaz eta gaixotasun berriak sortzen ari gara. Bizi itxaropena luzatu da, baina nolako kalitatearekin? Arnasik hartu ezin badugu, merezi al du hainbeste bizitzeak?

Apirilaren 28an Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna da. Zer deialdi egiten duzue?

Teresa.- Egun horretan hiriburu guztietan kontzentrazioak egingo dira eta berarekin parte hartzeko deia luzatzen dugu. Guztion esku dago lan baldintza hobekitzeko eta Lan Arriskuen Prebentziorako Legea martxan jartzeko presioa egitea.

Hezkuntzaren Gizarte GUNEA sortu da

Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren inguruan eztabaida eta elkarlana bultzatzeko asmoz GUNEA sortu dugu hainbat elkartetako pertsonen ekimenez.

Donostian, 1998ko apirilaren 24ean, "Euskal Eskolaren azken 20 urteak" izenburupean Ipar-Hegoa lan ikasketetarako fundazioak Topaketak antolatu zituen. Bertan, azken urteetan hezkuntza munduan izandako gora-beherei buruzko hainbat komunikazio eta kolaborazio aurkeztu ziren.

Eztabaida eta hausnarketarekin jarraitu nahi genuen eta horrela egin dugu. Ondorioz, hainbat puntutan ikuspegi beretsua dugula egiaztatu dugu:

1 - Euskal Herriak ez duela Hezkuntza Sistema propiorik eta Frantzia eta Espainiako estatuak araututako eskola-sistemak nagusi direla gure Herrian.

2 - Egungo Hezkuntza Sistemek ez dutela hizkuntz normalkuntza bermatzen. Eta lehen urrats bezala, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan ezinbestekoa dela.

3 - Erritmo ezberdinetan bada ere, eskalduntze mailan aurrerapen nabarmenak lortzen ari direla.

4 - Zentro eta Taldeko hezkuntza proiektu berritzaileak ugaritzen ari direla.

5 - Euskal kulturaren oinarritutako curriculumaren beharra dugula.

6 - Euskal Herriak bere Hezkuntza Sistema behar duela.

Hausnarketa honek guztiak, eztabaida eta elkarlanerako **Gunea** sortzea eskatzen zuen eta hori egin dugu.

Oinarritzko puntu hauen adostasunak bidea errazten digu aurrera begira ikuspegi ireki, aurrerakoi eta herrikoiki batekin eztabaida zabaleko **Gunea** sortzeko. Gune honen asmoa eztabaidan sakontzea



Bultzatzaileak (ezkerretik eskuinera eta goitik behera): Joana Etxeberria (Ikasle Abertzaleak), Juan Mari Elorza (LAB), Malores Etxeberria (Ikasbatuaz), Belen Arrondo (STEE-EILAS), Jesus Mari Larramendi (ELA), Jacques Sarrailet (Iparraldeko Erakasleak), Ana Eizagirre (BIGE), Joxe Mari Auzmendi (Hik Hasi), Gurutze Ezkurdia (Ipar-Hegoa Fundazioa), Iñaki Etxezarreta (Ikastolen Elkarte) eta Sortzen (berre ordezkaria ez dago argazkian).

eta elkarlanerako bitartekoa izatea da. Horretarako, eta eztabaida askea izan dadin, parte hartuko dugunok era pertsonalean jardungo dugu.

Gunea osatzen dugun kideon egitekoa, besteak beste, eztabaidak aberastuko gaituen heinean geure erakundeetan eragitea izango da. Eta **Gunearena**, berriz, elkarlanean jorratutako proposamenak egoki iruditzen zaien esparruetara -elkarre, giza-erakunde, instituzio...- zabaltzea.

Zertaz arituko da GUNEA?

- Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak (EHHS) gizarte-proiektu ala administrazio-proiektu izan behar duen.

- EHHSren ardatza zeintzuk osatu behar duten.

- Zein izan beharko lukeen EHHSren antolaketa administratiboa.

- Zenbatekoa ikastetxeen autonomia.

- Zein motatako partaidetza eta

kudeaketa demokratikoa nahi dugun.

- Nolakoa nahiko genukeen finantzaketa eta kontrol demokratikoa.

- Nola berdefinituko genukeen irakasle-ikasle arteko harremana.

- Zein irakasle mota nahi dugun.

- Administrazio eta zerbitzu-tako langileen funtzioak aztertu.

- Zein hizkuntz eredu sistema behar dugun.

- Nolako curriculum-a dagokion Euskal Herriari.

- ...

Puntu hauek guztiak aztertzen jardungo dugu, ahalik eta adostasun handienera iristeko asmoz, eta era berean eztabaida zabala egitera gonbidatzen ditugu interesa duten guztiak. Lehenengo hausnarketa eguna **maiatzaren 22a** izango da eta "**Euskara irakaskuntzan**" gaia aukeratu dugu. Hurrengo aldizkarian informazio xeheagoa zabalduko dugu.

euskal
heziketarako
aldizkaria

37



Lanbide Heziketa Atzerriko enpresetan lan-praktikak

Lanbide Heziketa

Atzerriko enpresetan lan-praktikak

Lanbide Heziketako ikasketak amaitzeko gehienetan enpresetan praktikak egin ohi dira. Idazkaritzakoak bulegoetan, Mekanikakoak tailerretan, Sukaldaritzakoak jatetxeetan... Normalean inguruko lantokiak bilatzen dira praktika hauek egiteko, baina ez beti. Martuteneko Lanbide Heziketako ikasleek atzerrira joateko aukera dute. Orain dela urte batzuk hasi ziren esperientzia honekin eta gero eta ikasle gehiago dira kanpora joaten direnak.

Martuteneko Lanbide Heziketako institutuan Idazkaritza, Mantentimendua eta Mekanika ikas daitezke gaur egun, eta baita Batxilergoa ere. Lanbide Heziketari dagokionez, ikasketak bukatzeko praktikak kanpoan egiteko aukera dute ikasleek, Europako zenbait herrialdetako enpresetan, hain zuzen ere. Baina nolatan joaten dira atzerrira? Zer egiten dute han?

Galdera hauen erantzuna jasotzeko asmoz hurbildu gara Eva Intsausti irakasle eta arduradunarengana. 1990.

urteaz geroztik kanpora begira jarri zirela esan daiteke, orduan hasi baitziren atzerriko ikastetxeekin harremanetan. "Lanbide Heziketaren erreformarekin hasi ginenean, titulazio berriak ateratzen hasi ziren eta gure ikastetxean Idazkaritza eleanitza eskaintzen hasi ginen. Ikasketa honetan hizkuntzak oso garrantzitsuak dira eta hori bultzatzen behar zela garbi ikusten genuen. Horrela, hemen ikasten zenarekin ez zela nahikoa konturatu ginen, eta ikasleek kanpora atera behar zutela".

Gainera, horrelako esperientziak ikasleentzat oso aberatsak izan ohi dira eta horregatik egiten dute proiektu hauek aurrera ateratzeko esfortzua irakasle hauek. Helburu ugari betetzen dira: hizkuntza egunerokotasunean erabiliz ikasten da, lan-praktikak eginez hango enpresetan, bertako bizimodua, kultura, ohiturak ezagutzen dira, jendearekin harremanak egiten dira...

Asmo horrekin hasi ziren atzerriko ikastetxe eta enpresekiko kontaktuak eta gauzak bideratuz joan dira. Lehen kontaktuak Ingalaterrako ikastetxe batekin egin ziren, eta gaur egun, berriz, ikasleak Ingalaterrara ez ezik, Suediara eta Italiara ere joaten dira.

Lehenengo esperientzia hura ederki gogoratzen du Intsaustik. "Hasieran Ingalaterrako ikastetxe batekin jarri ginen harremanetan eta elkartruke bat lortu genuen. Horrela, bi astetan gure ikasleak han egon ziren, eta ondoren hangoak hemen".

Baina helburua ez zen kanpoko

ikastetxeetara joatea, enpresetara baizik, hau da, praktikak egitea. Horrela, han eta hemen ibiliz eta mugituz, Ingalaterrako Sheffield herriko ikastetxeekin jarri ziren harremanetan. "Lanbide Heziketako zazpi ikastetxe elkartu egin ziren, Sheffield College osatuz, eta guretzat oso interesgarria zen. Hango azpiegitura, sistema eta abar ezagutzeko aukera ematen zuen eta oso aberasgarria zen gure ikasleentzat" dio Intsaustik.

Hasieran Sheffield-go ikastetxeek beraien zentroan antolatu zituzten ikasleentzako praktikak, baina gero enpresetan, eta gaur egun ere horrela jarraitzen dute. "Ikastetxeek beraiek aurkitzen dute ikasle bakoitzarentzako enpresa eta familia. Zeren han dauden bitartean familia batekin bizitzen baitira".

Enpresei dagokienez, hemengo antzekoak direla aipatu digu Intsaustik, Idazkaritzako ikasketekin eta lanarekin zerikusia dutenak, alegia: bankuak, telefono lantegiak, altzairu lantegiak, fundazioak, zerbitzu enpresak... Lantegi hauetan ikasleek duten eginkizuna hizkuntza mailaren eta ikasleen nortasunaren arabera egoten da. "Guk hemendik ikasleen txostenak bidaltzen ditugu hango eskolara eta haiek banatzen dituzte enpresetan".

Praktikak egiteaz gain, klaseak ere jasotzen dituzte Sheffield-go ikastetxeetan. "Kanpoko ikasleentzako klase bereziak izaten dira, ez hango ikasleekin batera. Horrela, mundu osotik joandako jendea topatzen dute: txina-

rrak, tailandiarrek, induak... Ekialdekoak izan ohi dira gehienak". Klaseak ongi daudela dio Intsaustik, baina garrantzitsuena enpresako praktikak direla.

Zenbait kasutan ikasleek hemen egiten dituzte lehenengo praktikak, kanpora joan aurretik, alegia. Eta batzuetan atzerriko enpresetako izaten da lan munduarekin edukitzen duten lehen harremana. "Guk nahia go izaten dugu aurretik hemen praktikak eginda joatea, horrela esperientzia gehiagorekin joaten direlako".

Ikasleen aldetik, orain arte oso pozik itzuli direla aipatu digu Intsaustik. "Hango enpresetatik txostenak eta agiriak bidaltzen dizkigute praktikak egin ondoren, eta onak izan dira orain artekoak. Ikasle horiek hona itzulitakoan gehienetan ez dute lana aurkitzeko arazorik izan, gainera. Batez ere Mantenukoek. Idazkaritzakoek zailtasun gehiago izaten dute".

Proiektuaren bideragarritasuna

Proiektu hau Leonardo Da Vinci programa europarraren barruan kokatzen da. Programa honek hainbat proiektu bultzatzen ditu prestakuntza profesionala promozionatu eta indartzeko helburuarekin. "Programa honek gure proiektuaren kostuaren %70eko dirulaguntza ematen digu, eta horrez gain Kutxa, Gipuzkoako Diputazioak eta Hezkuntza Sailaren barruan dagoen Lanbide Heziketako Zuzendaritzak ere lagundu digute orain arte". Inguru honetan horrelako proiektuetan murgilduta dauden ikastetxe gutxi daudela dio Intsaustik, eta horrek ere laguntzen diela dirulaguntzak eskuratzen. "Dena dela, dirulaguntzak luzatzeko orduan, proiektuaren kalitatea eta baliagarritasuna izaten dira kriterio nagusienak eta horretan ere hobetuz goaz urtero urtero esperientzia dela eta".

Suediako esperientzia

Sheffield-era lehenengo urtean lau ikasle joan baziren ere, orain zortzi

joaten dira. Kopurua igo da, beraz, baina horrez gain aukera ere zabaldu da. Hots, Idazkaritzako ikasleek ez ezik, Mantenimendukoek ere kanpora joateko aukera dute egun. Iaz joan ziren lehenengo aldiz, eta kasu honetan, Suediara.

Mantenimenduko sei ikasle eta Xabier Erro irakaslea hiru aste egon ziren Suedian. Getxoko enpresa baten bitartez Suediako enpresa batekin harremanetan jartzea lortu zuten eta honek mantenimenduaren inguruko ikastaro bat eskaini zien. Xabier Erro dioenez, Suedian nahiko aurreratuak daude makinaren mantenimenduan eta interesgarria izan zen han ikusi eta ikasi zutena. "Jaso genuen ikastaroan oinarriko kontzeptuak ikasi genituen eta horrez gain, makina hondatu baino lehenago, oraindik martxan dagoen bitartean, makinak nola dauden ikusteko eta zenbat iraun dezaketen kalkulatzeko zein analisi egiten dituzten ere ikusi genuen. Baina ez zen hori soilik izan. Zenbait ekipamendu gure eskolara ekarri genituen eta hemen martxan jarri ditugu. Hau ikasleentzat oso interesgarria da eta eskolarentzat ere bai, hango teknikak ezagutu eta erabiltzeko aukera ematen digulako".

Suedian pasatako egunetan hango hainbat enpresa bisitatzeko aukera

ere izan zuten.

Oro har, esperientzia positiboa izan zela dio Erro, eta ikasleak ere oso pozik gelditu zirela. "Oso ongi baloratu zuten ikasi zutenagatik eta hona itzuli ondoren lan-eskaintza bat baino gehiago jaso zituzten. Gaur egun denak lanean daude".

Suediarrak ere oso gustura gelditu omen ziren, ikasleak oso motibatuta ikusi zituztelako eta oso ongi erantzun zutelako. "Aurten beste ikastaro bat eskaini digute. Hobekuntza ikastaro bat da, bi enpresaren arteko prestakuntza osagarriarekin. Bata Total Productivity Development da eta oso ona dirudi. Bestea, enpresetan mantenuko programak martxan jartzera dedikatzen da. Eskaintza egin digutenak ikastaroak ematen ibiltzen diren profesionalak dira eta guretzat oso interesgarria da. Baina ekonomikoki posible den edo ez ikusi beharko da". Izan ere, ikastaroak kobratu egiten dituzte, eta eskaintza berri hau garestiagoa izango litzateke. Gainera, iaz proiektu honek ez zuen dirulaguntzarik jaso berria zelako, baina aurten, esperientzia ikusita, lor dezaketela uste dute.

Dena dela, Suediako harremanak gehiago sakondu nahi dituzte. "Orain arte enpresa batekin izan dugu harremana, baina eskola batekin erlazionatu nahi genuen. Izan ere, gure ikasle-



Eva Intsausti



Xabier Errro

ak hango bizitzan gehiago integratzea eta hango kultura ezagutzea interesatzen zaigu eta hori eskola batekin errazagoa da". Helburu horrekin, dagoeneko antzekoa den eskola batekin harremanetan daude. "Gure asmoa eskola horretan prestakuntza jasotzea eta ondoren beraiek aurkitutako enpresetan praktikak egitea da. Ondoren, hango ikasleak hona etorriko lirateke".

Italiara, Irlandara... ere bai

Sheffield eta Suedia ez dira atzerrira praktikak egitera irteteko aukera bakarrak. Aurten lau ikasle joango dira Italiara, baina beste proiektu baten bidez, Intsaustik argitzen digunez. "Lehenengo aldiz Confebask Leonardo Da Vinci programara aurkeztu zen iaz eta beste herrialdetan praktika batzuk egiteko bekak eskatu zituen. Ondoren, Confebaskek beka horiek hainbat ikastetxeri eskaini dizkie, eta tartean guri". Martutenekoek baiezkotzea eman diote. Elkartrukean oinarritutako beka da eta horregatik egon dira lau ikasle italiar hemen. "Guk

haientzako praktikak egiteko lantegiak aurkitu ditugu eta beraietaz arduratu gara. Ondoren, gure lau ikasle Italiara joango dira 10 astera".

Eskaintzekin jarraituz, tartean Ipar Irlandako enpresa batena ere jaso dute. Derryko enpresa batek hiru asteko egonaldian ingelesa ikasteko eta gero enpresetara joateko eskaintza luzatu die. Martuteneko irakasleen ustetan, hemengo ikasleak oso gustura egongo lirateke Irlandan, Ingalaterran baino gusturago, hurbilago sentitzen baitira irladarrak eta euskaldunak. Momentuz proiektua aurkeztu dute eta orain onarpenaren zain daude.

" Helburua ez da kanpoko ikaste-txeetara joatea, enpresetara baizik, hau da, praktikak egitea "

Lekuak bai, baina plazak...

Urtetik urtera proiektu hauek sendotuz doazela argi dago. Hasieran Idazkaritzakoentzat soilik zeuden. Orain Mantenimendukoentzat ere lortu dituzte. Eta Mekanika da falta dena. "Ikasketa hauek egiten dituztenei ere eman nahi diegu kanpora joateko aukera eta agian Ipar Irlandakoa izango litzateke egokiena hauentzat".

Hala ere, ikasle guztiek ez dute joateko aukera izango. "Ahalik eta gehientzako plazak lortzen saiatzen gara, baina, hala ere, aukeraketa bat egin beharra izaten dugu" dio Intsaustik.

Aukeraketa hori egiteko kriterio batzuk finkatuta dauzkate: notak, hizkuntza maila, hemengo enpresetako informeak... "Hasieran, informatzen hasten garenean, denek joan nahi izaten dute" dio Intsaustik, "baina benetako ordua iristen denean, askok lana dutelako, beste batzuk beste arrazoi batzuegatik, azkenean justu-justu ibiltzen gara Idazkaritzaren kasuan jendea osatzeko".

"Mantenuan, aldiz, alderantziz gertatzen da" Erroren arabera, "denek joan nahi izaten dute eta hor aukeraketa egin behar izaten da".

Baina Martuteneko eskolan ez daude Lanbide Heziketako ikasleak bakarrik, Batxilergokoak ere bai. Hauek ez al dira kanpora joaten? Intsaustik dioen bezala, ikasketa hauetan ez da Lanbide Heziketan bezalako praktikarik egiten, baina, hala ere, ikasketak kanpoan egiteko saiakerak egin dira. "Saio asko egin ditut, harremanak eduki ere bai, baina atzera egiten dute. Gauza hauek lan asko eta dedikazio handia eskatzen dute, eta agian hona etortzeko interesik ez daukate. Ingalaterran, adibidez, nahiago dute Alemania edo Frantziara joan".

Bestalde, aukera egonez gero, hezkuntza sistemen aldetik batxilergoko ikasketak kanpoan egiteko eragozpenik ez litzateke egongo, sistemak nahiko berdintsuak direlako.

Benetako protagonistak: ikasleak

Amaia Segurola eta Susana Diaz-Caneja Idazkaritzako ikasle ohiak. Iaz Sheffieldera joan ziren hiru hilabeterako

Zer egin zenuten hiru hilabete horietan?

Amaia.- Astean behin bi orduko ingelesezko klaseak jasotzen genituen eskolan eta egunero hango enpresa batera idazkaritzako praktikak egitera joaten ginen. Ni mezulari zerbitzuko enpresa batean egon nintzen idazkari lanak egiten.

Susana.- Nik erakunde batean egin nuen lan. Prebentzio programak eta gai konkretuen inguruko proiektuak egiten zituen erakundea zen. Idazkaritza lanak egiten nituen gehienbat, baina baita gainontzeko gauzak ere. Izan ere, bost pertsona geunden erakundean, eta jende gutxi egonda, denetik egitea egokitzen zaizu.

Zein zailtasun topatu zenituzten praktikak egiteko garaian?

Amaia.- Beraiek lantaldea osatua daukate eta hasieran zaila da bertan sartzea eta integratzea. Eta gainera, hizkuntza aldetik hasieran ez duzu dena ulertzen. Baina poliki-poliki ikasten eta egokitzen joaten zara. Txisteak ez dituzu ulertzen, baina lan egiteko adina bai. Niri asko lagundu



zidaten. Nire adineko neska bat zegoen eta harekin ondo moldatu nintzen.

Susana.- Nik lan egin nuen erakundean oso giro ona zeukaten eta asko lagundu zidaten. Hala ere, hizkuntza beti izaten da zailtasun bat hasieran. Guk hemen ingelesa ikasten dugu klasean, baina idazteko ingelesa da eta ez hitz egitekoa. Ez dute idazten duten bezala hitz egiten eta hasieran zaila da dena ulertzea. Baina poliki-poliki ulertzen joaten zara.

Enpresak gustura gelditu al ziren zuek egindako lanarekin?

Amaia.- Bai. Nire kasuan, lehenengo aldia zen atzerritar bat joaten zela eta gustura gelditu ziren. Gainera, guk langile ospea daukagu han.

Susana.- Bai eta lana bukatu ondoren egin dituzten txostenetan ere hori ikusten da.

Aurretik praktikak egin al zenituzten hemen beste enpresaren batean?

Susana.- Bai, ni udan Donibane-Lohitzuneko enpresa batean egon nintzen eskolako proiektutik joanda eta haiek izan ziren nire lehenengo praktikak. Ondoren Donostian ere ibili nintzen.

Amaia.- Nik CAFen egin nituen praktikak.

Ingalaterran lan-praktikak egin izanak lagundu al dizue hemen lana aurkitzen?

Susana.- Beno, badu eragina, nahiz eta horrek ez ziurtatu lana aurkitzea. Ni orain arte lanean aritu naiz, nahiz eta orain bukatu zaidan.

Amaia.- Ni ere orain arte lanean aritu naiz eta orain bukatu egin zait. Baina lana bilatzerakoan han izandako esperientziak eragina baduela uste dut. Gainera hango enpresek egin dizkiguten txostenak ere oso onak izan dira.

Susana.- Curriculumean atzerrian lana egin duzula ikusten dutenean kanpoko hizkuntza ezagutzen duzula konturatzen dira, baina ez hori soilik. Hango jendearekin harremanetan egon zarela, beraiekin lana egin duzula



Amaia Segurola



Susana Diaz-Caneja

eta kanpoan bizitzeko independentzia baduzula erakusten du, era berean. Guk, adibidez, Fist Certificate titulurik ez dugu, baina hori bezainbat baloratzen dute lan-praktikak egin izana.

Lan-praktikak egin bitartean bertako familietan egon zarete. Nolako esperientzia izan da hori?

Amaia.- Familiak oso ohituta daude kanpoko jendearekin egoten. Nire familian nirekin batera indiar bat eta brasildar bat zeuden. Normalean beti dago kanpotarren bat eta oso ohituta daude. Badakite guretzat oso zaila dela eta asko laguntzen dute.

Susana.- Nire etxean ere txinatar bat, taiwandar bat eta ni geunden. Oso ohituta daude kanpoko jendea hartzen, bai.

Ingelesek eta beste lurralde-etako jendearekin erlazionatu zarete, orduan.

Susana.- Bai, alde batetik, gure familia berean zeuden ikasle atzerritarrek ezagutu ditugu. Eta bestetik, eskolan ingeleseko klaseak atzerritar guztientzat prestatzen zituzten eta han ere elkartzeko ginen. Gure egoera berdinean aurkitzen dira hauek ere, eta gu bezalaxe lagunak egin nahi dituzte. Atzerritarrekin erlazionatzea erraza da.

Amaia.- Zailagoa da ingelesek harremanak izatea. Enpresako jendearekin eta familiarekin erlazionatzen zara, baina hortik kanpora, nahiko zaila da.

Oro har, nola baloratzen duzue esperientzia? Zuen ondoren datozen ikasleak animatzen al dituzue atzerrira joatera?

Susana.- Egia esan, nik hasieran ez nuen joan nahi. Ez nekien zer topatuko nuen han eta beldurra ematen zidan. Baina aukera aprobetxatu behar nuela ikusi nuen eta gero oso ondo pasa nuen. Ez naiz damutzen joan izanaz eta joan behar dutenak ere animatzen ditut.

Amaia.- Hasieran hiru hilabete asko

direla dirudien arren, gero berehala pasatzen dira. Niretzat positiboa izan da.

Patxi Arsuaga Mantenuko ikaslea. Sheffieldera joango da hilabeterako

Amaia eta Susanak esandakoak entzun ondoren, animatuta al zaude?

Egia esan, urduri nago. Hasieran ez nuen joateko asmorik. Nik goizez ikasi egiten dut eta arratsaldean lanera joaten naiz. Beraz, ezin nuen hemengo lana hilabete batengatik utzi. Baina, aukera hau edukitzea sari bat dela suposatzen da, beraz joan egingo naiz eta kitto.

Hizkuntzari dagokionez, beldurrik ematen al dizu?

Beno, ni EEBBetan egon nintzen hiru hilabetez, eta alde horretatik ez da kanpora noan lehenengo aldia. Baina bestetik, idazkaritzakoak baino gutxiago gaude prestatuta hizkuntza aldetik, eskolan behintzat. Azken bi kurtsoetan ez dugu ingelesa ikasgai bezala, beraz, gure kabuz ikasi behar izaten dugu.

Beharbada mantenuko lanak egiteko idazkaritzan baino gutxiago erabili beharko da ingelesa, ezta?

Agian bai, gutxiago erabili beharko da, baina erabili behar dena hizkuntza teknikoak da eta jakin beharrekoa.



Patxi Arsuaga



Ibai Marin

Ibai Marin Mantenuko ikaslea. Italiara doa 10 asterako

Italiara joango zara zu. Nola harrapatu zaitu kanpora joateko aukera honek?

Beno, hasieran ez nuen joan behar, baina bat-batean plaza libre bat agertu zen eta irakasleak joateko asmorik edo gogorik banuen galdetu zidan. Hasieran nahiko hotz harrapatu ninduen. Hemen gauzak nahiko planeatuta neuzkan: ikasketak amaitu, lana baneukan eta lanarekin jarraitu... eta hori pixkat moztu egiten zidan. Baina, azkenean, pentsatu ondoren, aukera aprobetxatzea erabaki nuen.

Zer aurkituko duzula espero duzu?

Ez dakit zer topatuko dudana, ez dut asko pentsatu, baina Italiak Ingalaterra baino gutxiago izutzen nau. Kultura ez da hain desberdina, hizkuntza ere errazagoa... Ingalaterrara joan beharko banu ez nintzateke hain lasai egongo.

Zer egingo duzu han?

Lehenengo hiru asteak hizkuntza lantzen eta ikasten pasako ditut eta ondoren enpresa batean hasiko naiz lanean. Hamar aste hauetan bertako familia batean egongo naiz.

Hemen praktikarik egin al duzu orain arte?

Beno, hemen lanean nabil. Goizez

klasera etortzen naiz eta arratsaldez lana egiten. Beraz, esperientzia badut, bai.

Lanean zabiltzalarik hamar astetan kanpora joateko baime-na eman dizute. Nola ikusten dute hemengo nagusi edo enpresarioek kanpora joateko aukera hori? Beraiei interesatzen al zaie atzerria trebatutako langileak izatea?

Nire kasuan nagusiarekin hitz egin nuen eta lasai joateko esan zidan, itzultitakoan lana izango dudala. Baina ez dut interes berezirik sumatu bere alde-tik, berdin zaiola uste dut, beretzat ez du onura berezirik suposatuko.

Ibon Izquierdo eta Iñigo Gaztelu Mantenuko ikasle ohiak. Iaz Suediara joan ziren

Nolakoa izan zen zuen plana?

Ibon.- Gurea ezberdina izan zen. Gu hiru asterako joan ginen, ez hiru hilabeterako eta alde horretatik lasaiago joan ginen. Ikastaroak edo klaseak, klase praktikoak eta bisitaldiak egin genituen hiru aste horietan. Eta ez ginen familietan egon, baizik eta egoitza batean denok elkarrekin.

Nolako ikastaroak edo klaseak jaso zenituzten?

Ibon.- Goizeko 8:00tik arratsaldeko 5:00ak arte klaseak jasotzen genituen. Lehenengo bi orduetan suedierako klaseak. Eta ondoren klase teorikoak eta praktikoak. Praktikoak ziren interes-



Ibon Izquierdo



Iñigo Gaztelu

garrienak, enpresan bertan lan egiteko aukera izan genuelako eta beste enpresa batzuk bisitatzea ere joan ginelako.

Iñigo.- Enpresa horretan mantenuko makinak ikusi genituen. Mantenuko makinak egiten dituzte bertan eta nola erabiltzen diren irakatsi ziguten. Oso ondo esplikatu ziguten eta oso ondo tratatu gintuzten.

Ibon.- Adibidez, egun batean penzilinaz egiten zuten kimika enpresa batera joan ginen tekniko batekin zerbitzu bat egitera. Berarekin batera ibili ginen han, berak egiten zuen lana ikusiz eta ikasiz.

Han ikasitakoak balio al dizue hemen, erabili al duzue?

Iñigo.- Ez, han ikasitakoa ez dugu erabili makina horiek ez daudelako hemen. Ez dago makina horiek erosteko dirurik. Hemen, guk lan egiten

dugun enpresan, badaude mantenuko makina batzuk, baina ez dira marka berdinekoak eta gainera nagusiek edo goi karguok soilik erabiltzen dituzte.

Hemen baino aurreratuagoak al daude orduan han?

Bai, bai mantenu mailan eta baita gainontzeko gauzetan ere. Enpresa guztiek mantenuko zerbitzua eta ekipoa daukate.

Hanikasitakoak, orduan, hemen lana aurkitzen lagundu al dizue?

Iñigo.- Egia esan, lana badugu, baina ez dut uste hara joan ginelako denik. Hala ere, eskari bat baino gehiago jaso dugu. Lan aldetik ez gara kexatzen, ez.

Nolako balorazio egiten duzue Suediako esperientziaz?

Ibon.- Kanpora joan ginen Mantenuko lehenengo ikasleak izan ginen eta oso ongi atera zela uste dut. Suediarrak oso pozik gelditu ziren gurekin. Inoiz ez omen dute hain jende motibatua eduki.

Iñigo.- Nik ere balorazio positiboa egiten dut. Sistema aurreratuak ezagutzeko aukera izan dugu eta baita hango kultura eta giroa ere. Baina ikastaroa egiteko bi aste nahikoa direla uste dut, hiru gehiegitxo direla.



Nik KLIKatzen dut
Zuk KLIKatzen duzu
Hark KLIKatzen du

Azkenik KLIK 2.2 euskaraz!

Baliabide multimedia erabilterraza, euskaraz eta doan



Josu XIMENEZ MAIA

Itzulpena egin duen lan taldeko koordinatzailea
sortzen@arrakis.es

Euskarazko programak etengabe ateratzen dira merkatura. Salgai izaten direnak programa eta aplikazio itxiak dira eta oso ederrak izanik ere, erabiltzaileok izanen ditugun aukera bakarrak beti izanen dira programak eskaintzen dizkigunak. Programa edota aplikazio itxiak diren neurrian mugatuak dira eta ezin izanen dugu aldaketarik sortu. Esan ere esan behar da guztiz baliagarriak izan daitezkeela arestian aipaturiko programak.

Programa itxiak versus programa irekiak

Baina duela gutxi atera den CD ROM zoragarri hori –irakurleak berak jar biezio izena- ordenagailu bakar batean jar daiteke eta eskolako ordenagailu gelan hamar ordenagailu dauzkagu; ezin ikasle guztiakin aldi berean landu, ezin CD ROM bakoitzaren hamar ale erosi, ezin kopiatu –ez al zenekiten bada, CD ROM komertzialak kopiatzea legez kanpoko delako, ene piratok?–; eta gainera aplikazio hori agian ez da egokiena nik zehazki behar dudanerako... Zer egin? Ikasle jakin batzuek ariketa zehatz batzuk behar izaten dituzte eta ohiko fitxaz aspertuta egonda –ikaslea zein irakaslea, zertarako ukatu?– zergatik ez erabili ordenagailua?

Egoki erabiliz, motibazioa ziurtatuta

Esaiozu ikasle bati:

“Egingo duzu fitxa hau, mesedez?”

Edo esaiozu:

“Joanen gara ordenagailuan jolastera?”

Agerian dago non dagoen bermatuta ikaslearen motibazioa...

Irakasleak badaki ez dela jolasa, bai zik eta –esaterako- lateralitatea lantzeko ariketa bat; hori bezalako hamaika egin ditu ikasle horrek paperean, baina orain sagua eskuan duela ikasleak joko bat ikusten du eta ez beste ariketa aspergarri bat.

Irakasleok buruan argi badugu zer landu nahi dugun haurrekin, KLIK bezalako tresna bat oso lagungarri suertat dakiguke. Guk geuk behar dugunarako ariketak sortuko ditugu; bide horretatik oso praktikoa da Francesc Busquets fbusquets@xtec.es katalanaren programa eta azkenik, euskarazko “KLIK 2.2 bertsioa”.

KLIKaren ezaugarriak

- KLIK programa hasiera-hasieratik programa irekia da, hots, ez digu zuzenez ariketarik eskaintzen, programa horrekin funtzionatuko duten ariketak egiteko aukera baizik.

- KLIK edozein arlotan da erabilgarria: hizkuntzak, matematika, musika, gizarte zientziak... eta oso erraz erabiltzen da edozein mailatan. Jadanik ariketa aunitz dago Haur eta Lehen Hezkuntzarako edota Bigarren Hezkuntzarako.

- KLIK bidez hainbat ariketa mota egin daiteke: elkarketak, buruhausgarriak, erantzun idatzia eskatzen dutenak, gurutzegramak... Eta ariketa hauek guztiek testua, grafikoak, soinua... erabil ditzakete.

- Windows erabiltzen dakien edonork sor ditzake ariketak, programak berak laguntza eskaintzen baitu ariketak egiteko.

- Irakasleari dagokionean, ikasleek datuaren prozesua jarrai dezake, programak jarraipen estatistikoa egiten baitu ariketen zailtasun maila aintzat hartuta.

- **KLIK**aren itxura guztiz grafikoa da eta askotan sagua nahikoa izan daiteke ariketak egiteko. Honek Haur Hezkuntzarako bereziki aproposa egiten du (koloreak identifikatu, irudiak parekatu, buruhausgarri errazak osatu, aurreko ariketak irakurri...).

- **KLIK**ek, irekia izanda, ikasleen beharren arabera aplikazio berrien etengabeko sorkuntza ahalbideratzen digu, irakasleok parte hartzen dugu aplikazioak egiteko eta aplikazioak beti aldatu edo moldatzeko posibilidadea dugu.

- Ikasmailetan gora joan ahala ariketak ere konplika daitezke eta ortografia, aditzak, testuak ordenatu, matematiketako edozein ariketa, musikako ariketak... egin daitezke.

- **KLIK**en ariketak txukun-txukun egiteko, ariketa berriak sortzeko, beti ere gure nahiaren eta posibilidadateen arabera, beste programa batzuk ere erabili beharoko ditugu:

- Testu prozesatzaile bat (Windows-ek duen ohar-bloka nahikoa da).

- Irudiak lantzeko programa (PaintShop Pro bezalako edozein).

- Letrazopak sortzeko programa (WordSearch edo beste bat).

- Musikako editorea (askotan ordenadorean dagoena nahikoa da).

- Bideoak ezartzeko edota animazioak egiteko balio duena (Windows-ek badauka).

KLIK eskura

Irakurle interesatuak kontuan har beza **KLIK**, freeware dela, doan banatzen den programa, alegia. Hortaz, kopiagarria eta nahi duzun ordenagailu guztietan ezarri edo instalatzeko modukoa da.

Programa ezartzeko ez da informatikan jantzia izan behar; pantailan agertzen diren argibideei jarraitu baino ez duzu egin behar.

KLIK 2.2 abiarazteko ez da ezinbestekoa azken belaunaldiko Pentium III 400mhz, win 95 edo 98 duen PC edo bateragarri xumeena (386 eta 4 RAMduna) nahikoa da.

Ikus daitekeenez, irakasle askorentzat aukera zabala eta guztiz aproposa da irakaskuntzako edozein mailatan erabiltzeko.

Hortaz... zeren zain zaude? Doan denez, probatu; Behera kargatzeko **INTERNETE**



“Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak”

ko www.xtec.es /recursos/clic helbidean duzu eskuragarri. Hortxe, **El racó del Clic** delakoan **KLIK**en txokotan alegia, aplikazio pila bat lor dezakezu, asko eta asko euskaraz, **ORIXE-orixe@arrakis.es** - taldekoek egindako lan itzelari esker. Adibide batzuk baizik ez ditut aipatuko: “Landareak”, “Baserria”, “Matematika jarduerak”, “Soinuak lantzeko ekintzak”, “Norantz” eta abar, egunetik egunera gero eta ariketa gehiago jartzen direlako web gune horretan.

Baina **KLIK** ibiltzen ikasteko ez al dago ikastarorik? Egia errateko oso ikasterraza da **KLIK**ek berak eskaintzen dizkizun laguntza testuei esker, baina tira, bai, egon badago... Hemen, esaterako, Nafarroa Garaian, azken bi urteotan 35 orduko ikastaroak eman dira eta orain-

txe bertan ere ematen ari dira; bi orduko hamar saio gehi beste 15 ordu nork bere kabuz aplikazio zehatz bat egin dezan. Ikastaro horietan **KLIK** erabiltzen ikasleak gain, Paint Shop Pro 5.0 eta irudiak lortzen ikasten da besteak beste, scanerraren bidez edo internetetik, baita **WAV** luzapeneko soinuak grabatzen ere, hau guztia **KLIK**en aplikazio berrien sorkuntzari begira.

Eta informatikaren munduan hobekuntzak etengabe ematen direnez, gu geu ere hasiak gara jadanik **KLIK 3.0** bertsioa euskaratzen.

Bihoazkie lerro hauetatik gure eskerrik beroenak egileari berari, baita gure itzulpen-egokitze lanetan iradokizun eta laguntza eman diguten **ORIXE**ko taldekideei ere.



“Pantailan agertzen diren argibideei jarraituz gero programa ezartzea benetan erraza da”

Harreman psikomotrizitatea Lanerako proposamen eta jarrera bat 0-3an. Irungo Udal Haur Eskolako hezitzaile taldea

Ondoren azaltzen dugun esperientzia bederatzi urte hauetan Irungo Udal Haur Eskolako hezitzaile taldeak eta gaurdaino gauzatutako lana posible egin duten beste laguntzaile profesional batzuek buruturiko bidea izango da. Kolaborazio hauen artean Arantxa Irastorzarena (pedagogo eta psikomotrizista) eskertu nahi genuke bereziki, bera izan baitzen bost urtetan jarraian gure laneari lagundu eta bideratu gintuena.

Hezitzaile taldeko bederatzi pertsonok (8 hezitzaile eta zuzendaria) ekipo egonkorra osatzen dugunetik (89-90 ikasturtetik) gure lanerako beharko genituzkeen ardatzak definitu eta sakontzeko asmoa eta kezka izan dugu. Garai haietarako, eta lehenago ere etapa honetan lan egiten zuten kolektiboek batez ere, hasiak ziren jadanik haren izaera hezgarria errebindikatzeko.

Gu ados geunden. Gure zentroak izaera hezgarri eduki beharko zukeen funtsean, baina garrantzitsutzat jotzen genuen izaera **hezgarri** hori **akademizista** izatearekin **ez nahastea**. Hor erraz erortzeko moduko tranpa bat zegoela iruditzen baitzitzaigun. **Hezitzeak**, adin hauetan batez ere, zenbait ezagueraren errazpide eta transmisioa ahalbidetzea, edo zenbait abilezian

entrenamendu desberdin eta egokiak eskaintzea baino urrutirago joan behar zuela ulertzen genuen. Gure ustez **helduen** eta **haurren** arteko erlazio konprometituagoa zen hezitzea. Adin honetako haurren eskariei inplikazio sakonagoak adierazten zituztela, alegia. Horregatik, intererlazio afektiboak (helduak-haurrak; haurrak-haurrak) faboratzea, heziera pertsonalean laguntza eskaintzea, gure euskarriaz elkaraldatzen eta elkarrenganako giza eraikuntza prozesua bultzatzea, hots, afektibo eta komunikatibo-erlazionalak diren arloak, hauek iruditzen zitzaizkigun lehen-tasunezkoak gure zeregin hezgarrian.

Bestalde, eguneroko esperientziak erakutsi zigun adin hauetan erlazio-komunikaziozko estrategiek izaera korporala zutela funtsean, eta sozialki eta kulturalki hainbesteko garrantzia duen aho hizkuntzaren benetako euskarri eta prelude zirela gainera. Premisa hauek kontuan hartuz, André Lapierre eta Nuria Franchek Psikomotrizitate Erlazionalaren inguruan egiten zituzten proposamenez interesatzen hasi ginen eta erreminta hezgarri gisan hartu genituen.

Proposamen hauek modu teoriko-praktikoan aboratu hasi ginen. Lapierren eskolako psikomotrizista batekin jarri ginen harremanetan eta hark gure zentroa osatzen duten sei taldeetatik birekin burutzen zituen asteroko psikomotrizitate saioak. Talde horietako tutoreak eta zuzendaria ziren, hasiera batean, lan horren lekukoak. Ondoren, talde guztiari irekiak ziren lan saioetan (nahi zuena joan zitekeen) han ikusten

eta grabatzen zutena analizatu eta hausnartu egiten genuen. Psikomotrizistak lanaren oinarri zen informazio teorikoa ekartzen zigun, honekin batera gu animatu eta analisia koordinatzen zuelarik.

Zer iradokizun ekartzen zigun hark guztiak?. Zein egoera iruditzen zitzaigun interesgarria, arriskutsua, zaila,...? Zeinek sortzen zigun zalantza, beldurra, segurtasunik eza,...?

Pixkanaka han ekoizten ari zenarekiko hurbilketa eta ulertzearekin (ez bakarrik teorikoki), lan proposamen hauetan sumatu eta aurkitzen ari ginenarekin, gure inplikazioa eta motibazioa ere transformatu egin ziren. Harrezkero, guretzat ez zen haurrak jolasean uzte soila izango, inguru konkretu batean sortuko zuten joko espontaneo bat baizik, eta aurrerantzean helburu berri haiez gidaturik jardungo genuen haurrenganako gertutasun osoa eskainiz, errudunak eta epaiketak saihestuz, haurren desio eta behar sakonak agertu arte itxoinerik ez esku hartu baino lehen, itxuraz hari erolerik ez zuten joko eta ekintzak edukiez hornituz, eta abar.

Horrela, pixkanaka, saioen lekuko hutsak izateari utzi genion eta haurrek egiten zuten ibilbidea antzeman eta sortzen zituzten egoeren ulermena eta behaketa eraldatzen hasi ginen. Tutoreak psikomotrizistaren zuzendaritza eta babespean saioetako partaide eta lankide izaten hasi ziren. Horrela, analisi eta hausnarketaren ondorioz lan saioak aldatuz joan ziren eta aurrerantzean gure lanaren edukia zein izango zen azalerraten hasi zen.

Psikomotrizistak, talde desberdinekin eta beraien tutoreekin jarduten zuzenez, ekipo osoak izan zuten haren lana gertutik jarraitzeko aukera. Azkenean, lan honen aberastasun eta ekarpenek gure haurrekin erlazionatzeko eta jokatzeko modua kutsatu zuten.

Haurren jokaera ez ezik, geurea ere, hezitzaile eta haurren erreferentziazko helduak garen heinean, behatu eta analizatzen hasi ginen. Bien bitartean, haurren desioek geureekin konektatzen zutela eta gaitzesten genituen zenbait jokaerak ere gure sentimenduekin eta zailtasunekin zerikusi handia zutela onartzen hasi ginen. Errealitate honetaz jabetzeak haurren inguruan gertatzen zenaz ulertzea lagundu zigun, beraien sentimendu eta zailtasunak errespetatu eta garatzen lagundu zigun, hain zuzen.

Saioetako lan espezifikoak eskaintzen zituen posibilitate aberatsak eta zabalak zirela medio, ekipo honetako hiru pertsonak gehiago sakontzeko gogoia sentitu zuten eta psikomotrizista izateko prestakuntza egitea erabaki zuten. Jadanik hiru pertsona haiek prestakuntza ikasketak bukatuak dituzte.

Gainera, urte haietako esperientzia eta erreflexio teoriko-praktikoez guztion jarreraren aldaketa eragin zuten bizipen hezgarriak beteriko ezagutza ekarriak ekipoari. Halaber, horrek guztiak ematen zigun perspektibagatik, eragin handia izan zuten lanerako proposamenetan, antolamendu eta baliakizun hornidura eraketarako, eta zentroko dokumentu kurrikularren idazketarako.

Gaur egun erlazio-psikomotrizitate saioak esplizituki gure proiektu kurrikularren barnean egotea haren eraginaren isla zuzena izan da, baita horretarako jarraitu diren irizpideak ere.

Irizpide hauetako batzuk aipatuko ditugu:

* Adin hauetan afektibo-sentimenduzko eta erlazio-komunikaziozko alorrei emango diegu lehentasuna.

* Sendikoen irudiak (ama, aita edo ordezkakoak) erreferentzi euskarriak eta funtsezkoak dira. Gure lana haiena osatzea edo egokitzea izango da baina ez ordezteko edo ordezkatzeko.

* Ekipoak zentroko haurrekiko lotura afektiboari laguntzen dion guztia bideratu, eragin eta lagundu behar du, hau



izango baita geroko lanari eutsiko dion euskarria.

* Komunikazio toniko-korporalak eta interkomunikazioek leku pribilegiatua bete behar dute gure zereginetan adin hauetako haurrengan erabiliena den erregistrotzat jotzen dugulako huraxe.

* **Jolasa** haurraren berezko den jardueraratzat hartuko da bere alde guztietan eta gure proposamenen erremintan eta jardueraren giltzarri izango da.

* Dependentsia egoera aurreragarria eta benetako sozializazioa eta identitatea landu ahal izateko abiapuntu den bizipen osasuntsutzat ulertu beharko genuke, eboluzioaren une bateko berezko bizipena bailitz, hain zuzen.

* Ekipoa osatzen duten guztiek jokaera eta jokabideen hausnarketarako eta birplanteamendurako jarrera irekia izan behar lukete, haurrekiko erlazio-komunikaziozko bilbaduran dugun eragina kontuan izanik.

Erlazio-psikomotrizitate saioetako lan espezifikoan jarritako helburuak eta hauen gauzatzea azalduko dugu ondoren.

Haiek dira planteatu ditugun helburuak

- Gure ikasleei, "Minik ez egitearena" muga bakarra izanik, benetako inizatiba bultzatu, ahalbidetu, eta segurtasuna emango dien gune espezifikoak eskaintzea.

Horretarako, arriskutsu deritzogun guztia eta norberaren mugimendurako oztopo izan daitekeena baztertuz prestatuko dugu gunea, adin desberdinak kontuan hartuz. Orobat, adierazpena errazteko eta komunikaziorako bide

izango den materiala edukiko dute haurrek eskura.

Material hau (pilotak, puxikak, aroak, sokak, oihalak, paper mota desberdinak, kartoizko kaxak, goma-espumazko moduluak, koltxonetak, espumazko hodiak...) material ezkonkretua izango da, haurraren proiektioarekin ados dagoen edozer gauza errepresenta dezakeena, arriskurik gabekoa, eta estrukturaraketarako nahiz eraiketarako aukera eman dezakeena. Eroso erabili ahal izateko material ugari izatea komeni da.

- Abordatze toniko-gorporalean sakontzea. Akats, gatazka eta nahien adierazpena bultzatzea. Horretarako ezinbestekoa da psikomotrizista heldua espresio hauei adi egotea.

Nahien, gatazken eta abarren adierazpenari buruz hitzegiten dugunean, hain zabal eta ezberdin diren espresio hauei buruz ari gara: ukapena, onarpena, eraso, edukitzea, baieztapena, menpekotasuna, zapuzketa, erruduntasuna, beldurra, lehiakidetasuna, zeloak, iraupena, binako erlazioaren bilakaera, pribilegiatua eta fusiozkoa edo taldekoa, ekiditea, ezjakitea, bestearekiko edo besteekiko erlazioaren ukapena eta abar. Azken batean hunkipen, sentimendu eta afektuen mota guztietako espresio moduei buruz ari gara.

Psikomotrizista "Adi egotea" esatean helduaren errespetuzko eta gorputzezko gertuko presentziari buruz ari gara, haurrekin benetazko elkarrizketa batean sartzen saiatzeaz eta onartu ahal izateaz, inizatiba emanez haurrak nahi eta ahal duen elkarraldatze mailan sartzea onartzeaz, nahien eta gatazken pro-



zaigu tutorea, psikomotrizista izan edo ez, saio hauetan egotea, lan eredu honek eskaintzen dion informazioa eta perspektiba berria jaso baitezake, denon mesederako izango dena, noski.

- Zentroan dauden sei taldetatik bostek proposamen hau lantzeko aukera izango dute (Txikiak 1, Txikiak 2, Ertainak, Handiak A, Handiak B), sehasketako taldea salbuespen izanik, gela honetan proposamen hau beste era batera gauzatu behar dela uste baitugu. Esango genuke adin hauetan erreferentziak helduen gertutasuna eta erlazio toniko-korporala ia iraunkorra izan behar duela.

- Talde bakoitzaren kide bakoitzak duen egokitzapen eta lotura maila ikusita jarriko da saioak hasteko data. Data hau klustroan planteatu eta negoziatuko da.

- Talde bakoitzarekin lanean hasi eta gero, saioen maiztasuna asterokoa izango da eta iraupena 45-60 minutukoa.

- Saioak, kasu guztietan, goizeko 10.30etik 11.30era burutuko dira, denak Zentroan dauden uena baita eta nahiz ordutegi desberdina eduki hurrek aktibitate honetan parte hartzea ziurtatzen da horrela.

- Saioen analisi eta jarraipen lana psikomotrizistak egindo du funtsean, baina gelan egoten den bigarren helduarekin ere konpartituko du lana, batez ere azken hau tutorea denean. Hala ere, denentzat interesgarriak diren kasuetan lan proposamen edo hipotesiak klustroa ere eramango dira.

- Ikasgelako bilerak antolatuko dira gurasoek beraien seme-alabekin egiten den lan mota ezagut dezaten. Lan proposamen honen ezaguera eta ulermena errazteko ikus-entzunezko materiala erabiltzen ahaleginduko gara, oso garrantzitsua baita gurasoek egiten dena eta zergatiak argi eta garbi jakin ditzaten.

- Gurasoei, beraien seme-alaben jarraipen eta bilakaerari buruzko informazioa azalduko zaie.

Bukatzeo, lan honek guztiak Hezitzaile Taldeko kide bakoitzarentzat, nahiz maila desberdinetan, ahalegin eta inplikazio handia suposatu du, baina egindako bidearen ondorena oso positiboa eta lan perspektiba atsegingarria ireki digula baieztatzeo moduan gaude.

jekzio eta euspenaren "gunean" proiektzio horietan erabil daitekeen "objektu" batean ere bilakatzeaz.


- Psikomotrizista heldua adi egote honen bidez, haurren adierazpenak **eduki sinbolikoz** hornitzen saiatuko da, erlazio estrategia bilakatu ahal izateko.

Psikomotrizistak, behaketan entzun edo ikusi duenaren irakurketa adia egingo du, inguru zabal batean kontestualizatuz. Irakurketa hau eduki formal eta ageriko hutsetik are urrutirago joango da, eduki ezkutuekin zerikusi gehiagoko duen irakurketa-dekodifikazio sinbolikoa izateraino iritsiz. Irakurketa eta dekodifikazioaren bidez taldearentzat eta taldeko haur bakoitzarentzat lan hipotesiak planteatzen joango da psikomotrizista eta ondorengo interbentzioak diseinatuz.

Sortzen diren erantzunak, interbentzioak eta agertutako adierazpenak eduki sinbolikoz hornitu eta haien adierazpen moduak erosoagoak izan daitezten bideratzen saiatuko da (bai haurrentzat bai besteentzat) beraien erlazio estrategiak eboluzionarazteko eta, bakoitzaren erritmoa kontuan harturik, ekipaje pertsonalari dagokion guztia (nahiak, mugak, baliabide positiboak...) ezagutu, onartu eta poliki-poliki integratzen joateko.

Nuria Franch-ek, "La psicomotricidad relacional, una herramienta educativa" liburuan planteatu duen lan eskema

aipatu dugu, gure ikuspuntutik, azaldu ditugun helburu motak argitzen lagunduko baitugu.



Jarraian, saio hauek gure zentroan eramaten ditugun era azalduko dugu:

- Saio hauetaz psikomotrizista formazioa duten hiru pertsonak arduratuko dira.

Batzuetan tutorea eta psikomotrizista pertsona bera izango da. Kasu hauetan pertsona horrek eramango du aurrera saioa eta horrez gain bigarren pertsona bat bertan egoten ahaleginduko gara. Bigarren pertsona honek funtzio desberdinak izango ditu, hala nola, segurtasuna indartu eta osatu, gela eta haurren antolaketaren prestakuntza erraztu, behatu eta bideoan grabatu saioaren ondorengo analisisa egin ahal izateko...

Psikomotrizista eta tutorea izatea pertsona berean egokitzen ez direnean, hiru psikomotrizistetako bat izango da lan hau hartuko duena (banaketa eta antolakuntza klustroan egingo dira), eta tutoreak bigarren pertsonaren papera beteko du. Oso garrantzitsua iruditzen

KONTSULTA TXOKOA

Zuen kezkak
planteatzeko eta
zuk ere bestean
zalantzak
argitzeko lekua
duzu.



Berriak

Bidal itzazu zure galderak edo zalantzak
irakasle euskaldunon aldizkarira

APIRILA



Sortzen eta Ikasbatuaz elkartzeko asmotan dira

Nafarroako Sortzen eta EAEko Ikasbatuaz elkarteak orain dela bi urte jarri ziren elkarrekin harremanetan eta orain biak batu egingo dira. Ekainean egingo den asanblada orokorrean erabakiko dute talde berriaren izena, baldin eta aurretik egingo diren barne eztabaidetan elkartzeko hori onartzen bada.

Bi taldeotan biltzen diren Euskal Herriko Ikastola-Eskola Publiko Euskaldunetako guraso, ikasle, irakasle eta langile ez-dozenteen asmoa Euskal Eskola Publikoak izan behar dituen eta ezinbestekotzat jotzen dituzten ezaugarriak gizarteari ezagutzera ematea da.

Ezaugarri horien artean daude Euskal Eskola Publiko Berriak euskalduna izan behar duela, autonomia eta gestio

demokratikoduna, laiko, hezkidetzan oinarritua eta anitza, kalitatezkoa eta integratzailea, osoki finantzatua eta lan marko berri batean kokatua.

Ezaugarri hauek izango dituen Euskal Eskola Publiko Berria lortzeko prozesuak ezberdinak izango dira egoera administratibo ezberdina dela eta. Baina elkartzeko honek eman behar diren urratsak bideratzeko balioko du eta derrigorrezkoak diren baldintzak jakinarazteko eta exijitzeko indarra ere bai. Etorkizunean EAE, Nafarroa eta Iparraldeko ikastola-eskola publiko euskaldunak egitura berean bilduko dituen elkarteak sortzea da helburua.

Momentuz Sortzen eta Ikasbatuaz bildu badira ere, Iparraldeko Ikas Bi elkartearekin harremanak izan dituzte eta begi onez ikusi dute proiektua.

Nafarroako ikastoletako haurrek hauteskundeak egin dituzte gustuko liburuak aukeratzeko



Martxoaren 23an Nafarroako ikastoletako 4.050 haurrek "Liburu hauteskundeak" burutu zituzten. Haur eta gazteek gehien gustatzen zaien liburua bozkatzeko aukera izan zuten. Aukeraketa libre izan zen, idazlearen aldetik ez zen mugarik jarri eta ezta hizkuntza eta generoen aldetik ere. Horrelako kasuetan epaimahaia, aukeraketa eta sariak helduen esku egoten dira, baina oraingoan haurrak izan dira prozesu osoa aurre-

ra atera dutenak.

Hauteskundearen aurretik azaroan hasita haur eta gazteek gustuko liburuaren kanpaina egin dute gelan liburuak aurkeztuz eta defendatuz. Orain emaitza ezagutu ondoren, liburuak aukeratuak aztertuko dira eta tratamendu pedagogikoa egingo zaie: gelan landuko dira eta idazleak gonbidatuko dituzte ikastoletara.

Kanpainaren eta hauteskundearen

helburuak bi dira:

1- Irakurketaren zaletasuna bultzatzea: gehien gustatu zaizkien liburuak defendatuz eta besteek aukeratutako ipuinak irakurtzeko interesa piztuz.

2- Bozka egiteko prozesu arrunta ezagutzea. Haur eta gazteak dira hauteskunde mahaiaren arduradunak. Hauteslearen errolda kontrolatu behar dute eta bozkatzeko prozesua gainbegiratu.

Juul izena jarri diote hauteskunde kanpaina honi. Nondik dator izena? Gregie de Maeyer liburu ilustratzaile eta idazlearen pertsonaia hunkigarria da. Berak eta eskulturgile batek sortua izan zen. Flandiar honek testua eta plastikaren artean interakzio estua lortu zuen. Sari asko jasotakoa izan da. Iaz hil zen eta kanpainari Juul izena jarri nola baitaiteko omenaldia egin nahi izan diote.

ARGITALPENAK



EMAKUNDE
1999ko
martxoan
34. zenbakia

Emakunderen aldizkari honetako gai nagusia emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzeko bidean pausatzen da. Prozesu hori zein egoeratan dagoen, emakumeen aldatketen aurrean zer sentitu eta pentsatzen den, noraino parte hartzen duten gizonak... eta antzeko gaiak landu dira erreportaia, iritzi artikulu eta elkarrizketetan.



RAMON SAIZARBITORIA ETA JUAN ANTONIO MOGELEN ANTOLOGIAK

**Labur antologia bilduma
Ibaizabal eta Kriselu**

Ibaizabal eta Kriselu argitaletxeek Labur izeneko bilduma berriari eman diote hasiera. Zenbait euskal idazleren testu aukeratuen antologia argitaratzeko asmoa dute eta Juan Antonio Mogel eta Ramon Saizarbitoriaren antologiak izan dira lehen biak.

Antologia bakoitzak idazlearen testuak biltzeaz gain autorearen aurkezpen zabala biltzen du, bere biografia, obraren azterketa eta hainbat argibide topa daitezkeelarik. Amaieran autorea eta bere lana lantzeko eta sakontzeko hainbat proposamen ere egiten dira, bereziki irakasleari zuzenduta daudelarik.

Lehiaketak

CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako VI. Sariak

Seigarren urtez egin dute CAF eta Elhuyarrek sari honen deialdia eta beste urtetan bezala aurten ere bi maila izango dira:

1- Zientzi dibulgaziorako artikulak: sari honetara idazle berriek euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgazio-artikuluak aurkeztuko dira. Inoiz artikulurik argitaratu gabeak edo 1996. urtera arte Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkarian gehienez bi artikulurik argitaratu dituztenak hartuko dira idazle berriztat.

Hirusari izango dira: lehena, 100.000 pezetakoa; bigarrena, 50.000 pezetakoa eta hirugarrena, 25.000 pezetakoa.

2- Dibulgazio-liburu bat: sari honetara euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgazio-liburuen proiektuak aurkeztuko dira. Sarituari 700.000 pezetako beka emango zaio bere proiektua burutzeko urtebeteko epean.

Lanak 1999ko azaroaren 15a baino lehen bidali beharko dira helbide honetara:

**Elhuyar Kultur Elkartea
Asteasuain poligonoa 14
20170 Usurbil**

Informazio gehiago: 943 36 30 40 telefonoan.

Julene Azpeitia ipuin eta bertso paper lehiaketa

Ipuin eta bertso paper lehiaketa

honetan bi arlo daude:

a) Durangoko eskoletako haur eta gazteentzat eta kanpoko eskoletan ari diren haur eta gazte duragarrentzat (11-16 urte). Honen barruan hiru maila daude: 11-12 urte, 13-14 urte eta 15-16 urte.

b) 17 urtetik gorako edorentzat.

Lanak euskaraz idatziak egon beharko dute eta inoiz argitaratu gabeak izan. Lanak aurkezteko epea apirilaren 19an bukatzen da. Helbide honetara bidali behar dira:

**Julene Azpeitia lehiaketa
Durangoko Udaleko Euskara
Saila**

Zeharkalea, 3
48200 Durango
Informazio gehiago: 94 621 53 70

Idazkera harmonikoak ahalbidetzen II



Irune IBARRA
Psikologoa eta grafologoa

Aurreko zenbakian hasitakoari jarraituz, "Idazkera harmonikoak ahalbidetzen" gaiaren barruan atal gehiago ikusiko ditugu. Formaz aritu ginen lehengo alean eta orain orriaren antolaketa, letren neurria eta jarraitasuna izango ditugu hizpide.


B. Orriaren antolaketa

1. Bazterkiak (marjinak): Ondorengo neurriak uztea aholkatzen da. Goian: orriaren luzeraren %10etik 15era.

Ezkerrean: orriaren zabalaren %10etik 15era. Ahal dela erregulariki mantentzea aholkatzen da, sartu-irtenik gabe. Zig-zag forma hauek emotibitatea erakusten dute eta zaila gerta daiteke kontrolatzea.

Eskuinean: orriaren zabalaren %5a (ezkerrekoa baino irregularragoa izatea normalizat hartzen da).

Behean: orriaren luzeraren % 5a.



Zer ahalbidetzen du antolaketa honek?

- Burua ordenan, antolatuta edukitzea.

- Goiko bazterkia: idazten dugun pertsonarekiko behar besteko distantzia mantentzea, errespetua.

- Ezkerrekoa: guraso eta iraganarekiko lotura sana eta independenteagoa izatea.

- Eskuinekoa: pertsona erabakiorra izatea, soziabilitatea lantzea eta etorkizunarekiko beldurrik ez izatea. Ekidin beharrekoak dira "azeri buztanak" eta

aldameneko orrialdera igarotzea. Orria bortxatu gabe idatzi behar da eskuin alderantz.

- Behekoa: dihardugun zereginen gehiegi murgilduta egotea eta ikuspuntu orokorra (perspektiba) ez galtzea.

2. Lerrotik lerroko espazio egokiena norberaren lau letra minuskula edo airea oztopo gabe igarotzeko bestekoa da.

Zer ahalbidetzen du lerroen arteko espaziamendu honek?

- Ideiak gardentasunez ikusten, hots, ikuspegi orokor ona edukitzen.

- Besteenganako errespetua.

- Zintzotasuna.

- Txukuntasuna.

3. Hitzetik hitzera utzi beharreko neurri orekatuena norberaren "m" baten edo bi obaluren ("o" letra hartzen da abiapuntutzat) zabalera litzateke. Haurrek "m" hau airean atzamarrekin irudika dezakete edo kantu-hitzaren bidez gogoratu.

Zer ahalbidetzen du hitzetik hitzerako espaziamendu honek?

- Hausnarketa. Buruarintasuna galtzen du.

- Besteekiko distantzia eta beharri-egokia ahalbidetzen du, ez gutxi-egi eta ez gehiegi.

4. Letratik letrarako espazio egokiena letra baten altueraren % 80a litzateke.


Zer ahalbidetzen du letratik letrako espaziamendu honek?

- Eskuzabaltasuna.
- Besteari tokia egitea, entzuten jakitea.
- Burmuin zabaltasuna.
- Ziurtasun pertsonala.


C. Letren neurria

Neurrian autoestimua, berezkotasuna eta askatasun maila islatzen da. Protagonismorako edo bigarren planoan gelditzeko joera, xehetasunak zaintzea, ikuspegi orokorrerako grina...

Neurriaren genero honetan hiru elementu hartzen dira kontuan: obaluak (hots, letren begiak; a, o, d, g, q), zango-gangorrek (d, f, g, j, p, q, t eta z batzuetan) eta maiuskulak.



Bai obaluak, bai zango-gangorrek eta bai maiuskulak neurtzeko era ondorengoa da:




Normalean orrialdearen goialdeko lerroetako letrak, erdi ingurukoak eta orriaren behealdekoak neurtzen dira eta ondoren batez bestekoa egiten da.

1. Obaluak edo erdigunea: aholkatzen dena erdi-mailako neurria da: 2'5-3'5 mm artekoa eta erregularitasun batekin egindakoa. Idazkera txikiak (1'5-2'5 mm-koak) eta handiak (3'5-4'5 mm-koak) ere egokitzen hartzen dira, nortasun ezaugarri desberdinak erakusten dituztelarik.

Zer ahalbidetzen du obaluen neurri erregular honek?

- Autoestimua orekatu eta berdintsua (gorabeherarik gabea).
 - Ikuspegi orokorraren eta xehetasunak gehiegi zaintzearen arteko oreka.
- Neurriaren arlo honetan muturrak dira beharbada nolabaiteko desoreka erakusten dutenak: milimetro bat eta



erdi baino txikiagokoak, itomena eta obsesioetarako joera erakuts baitezakete eta 4 milimetro eta erdi baino handiagoko idazkerak haur izatea, harropuzkeria, arreta ezintasuna...

Motrizitate fina perfektionatzen doan neurrian idazkeraren neurria txikitzen joaten da. Ajuriaguerraren ustez, haurrak traketsak direnean 4 edo 5 milimetrotako idazkera mantentzeko. Grafologiaren ekarpenen arabera, haurretan normalagoa da idazkera handiak aurkitzea eta arazo gehiago dakartzate idazkera oso txikiak.

Ajuriaguerraren ustez, traketsak ez diren haurrentzat eta 4. mailatik aurrerakoentzat 2,5-3 milimetrotako neurria egokia da.

Haur batzuk ezin izaten dute erdigune erregular bat egin (urduritasunarengatik, haur sortzailea izateagatik...) eta guraso eta irakasleek ez dute beti egoera hau ulertzen. Kontuz haur hauekin, saiatu euren egoera ulertzen eta bi lerroko orrietan idaztera animatu.

2. Zango eta gangorrek (beheko eremua eta goikoa): proportzionaltasuna Zango eta gangorrez hitz egiterakoan hitz klabea proportzionaltasuna da. Obaluekiko edo erdigunearekiko proportzionalak, hau da, bikoitz-hirukoitzak izatea aholkatzen da.

Crépiaux-Jamin-en ustetan, proportzioa harmoniaren baldintza nagusia da. Ordena eta argitasunarekin oso lotua dago. Dena den, neurriaren aldaketa txikiak, harmonia apurtu beharrean, idazkerari bizitza ematen diote.

“d” letra gangorra duten beste letrak baino baxuago egiteak apaltasuna erakusten duela ikusi izan da.

Zer ahalbidetzen du zango-gangorren proportzionaltasunak?

- Barne-oreka.
- Arreta gaitasun ona.

3. Maiuskulak: erdigunearen hiru-laukoitza egitea da neurri estandarra, testuan zehar erregularitasun batean eginik (Euskal Herrian oso maiuskula txikiak ikusi ditut oro har).

Zer ahalbidetzen du maiuskularen neurri egoki bat egiteak eta testuan zehar antzeko neurriarekin mantentzeak?

- Autoestimua ona.
- Parekotasunean oinarritzen den harremana.

Zera eduki kontuan: proportzioetako errespetua eta erregularitasuna ez dago soilik espazioaren pertzepzioaren edo mugimenduen koordinaketaren menpe. Haurren egokitzapen afektiboak izugarri eragiten du, zeren eta erregularitasunak eta proportzioak “arau” eta “printzipioen” isla zuzena dira. Haur batzuk ezin izaten dira arau hauetara moldatu. Bestalde, haur emotibo-urduentzat benetan zaila gerta daiteke bere lorpena.

D. Jarraitasuna, lotura



Jarraitasunaren gai hau oso garrantzitsua da hezkuntzan, berez adierazten duenarengatik eta aholkuak soilik eskolatzearen lehenengo urteetan ematen direlako.

Gogoratu esaldi hau:

“Letra batek ideia bat, ekintza bat eta pertsona bat adierazten du. Letra biren

loturak ideia biren lotura (logika), ekintzaren jarraitasuna eta portaeran pertsona elkarkorra izatea erakusten du. Hiru letra elkartzeak arrazoinamendua, irmotasuna eta harremanetan oso lagunkoia izatea azalduko luke”.

Haurrei honela azaltzen diet loturaren kontzeptua



1. Idazkera elkartua egitea aholkatzen da, hiru eta lau letra lotzea, alegia. Ez letra guztiak aske, ez eta letra guztiak lotuta ere.

2. Letren arteko lotura txirikorda forman egitea da hoberena (ez harizpi *h* ez eta angelu forman *angelu*).

3. Ekidin lotura faltsuak, “collage” (*collage*) eta lokarriak (*lokarriak*), hau da, idazkorta jaso eta letra berria aurreko letrari itsastea. Ziurtasun eza, atzera gehiegi begiratzea, beldurrak, pentsamendu abstrakturako zailtasunak... erakusten dituzte.

3. Zelan irakats daiteke letrak elkartzen?

* **Lehenengo pausoa:** letra errazak elkartzea. Adibidez: *abe, eta, eta*

* **Bigarren pausoa:** 8-9 urterekin elkartzen zailagoak diren letrekin lotura komenigarriak egiten irakasten zaio haurrari, lotura faltsuak ez egitea eskatuz. Azaldu letrak pixka bat aldatu egiten direla ere,, aurrean edo atzean duten letraren arabera. Adibidez: *abe, eta, eta. abe, eta, eta*

* **Hirugarren pausoa:** idazkorta non jaso?

Hitzak bezala, idazkerak (adierazkora izan dadin) arnasketa denborekin erritmoa eraman behar du. Idazten duen eskuak soltura eta abiadura gehiago lortzen du idazkorta non altxatu ondo aukeratzenean. Idazkortzaren altxatze egokia egiteko beraz, hiru era daude:

a) Hasiera eskuinean duten letren aurrean idazkorta jaso.

Adibidez: *abe, eta, eta*
Salbuespena “o” letra izan daiteke. Sarritan aurreko letrarekin elkartzeak arintasuna eman diezairoke idazkerari: *bon vom*

b) Azentua-puntua-makila daramaten letren ondoren idazkorta jaso.

Adibidez: *sire mira*
Azentua-puntua-makilaren bat azken aurrekoa baldin bada, salbuespena egin daiteke. *Denkia, puzale*

c) Hitz luzeen erdian idazkorta jaso.

Adibidez: *pimpilomana*
Irakurtzen ikasten dabilen haurrari silaben bitartez irakasten diogu idazten, erritmoa jarraituz. Lengoiaren transkripzioaren arazoak gainditzen doan neurrian, lotura hobeak erakutsiko dizkiogu. Haurrak lotura teknika nagusiak ulertu dituenean, hauek automatizatu egiten dira. Letrak elkartzeko orduan gustuak errespetatu (beharbada pertsona bati ez zaio gustatzen “p” letra lotzea, besteari “r”a elkartzea...).

Zer ahalbidetzen du letren lotura elkartuak?

- Pentsamendu deduktiboa edo logikoaren eta intuitiboaren garapena.
- Ideia eta ekintzetan iraupena.
- Soziabilitatea, talde-giroan integratuta sentitzea.

- Elkartzeak idazkerari arintasuna eta naturaltasuna ematen dio.

Ondorengo letren arteko loturek, aipatutako ezaugarriak ahalbidetzez gain, sormena eta sintesia garatzen dute.

- “z” letraren makila hurrengo letrari elkartzea. *ze*

- “d” letra hurrengo letrari goitik elkartzea. *de*

- “i”ren puntua hurrengo letrari elkartzea. *hilabete, inguru*

- “t” letra hurrengoekin elkartzea. *the*

- Maiuskulen loturei buruz, minuskulekin elkartzeak zera adierazten du: ekintzaren bat burutu eta ondoren pentsatzea. Minuskulekin ez elkartzeak lehenengo ekintza eta gero pentsatzea islatzen du. Arrazoi honengatik erdibidea maiuskula batzuk elkartuta eta besteak lotu gabe egitea izaten da. Kontuz “N”, “T” eta “V” letrekin, lotura faltsuak egiteko arriskua egoten baita.

- N maiuskula hurrengo letrarekin goitik elkartzea.

- T maiuskula hurrengo letrarekin goitik elkartzea.

Me ← **Garapen maila altua duten idazkeretan ematen dira soilik.**
Te

Hélène de Gobineau eta Roger Perron-ek 1954. urtean eginiko ikerketetan adinaren arabera hitz luzeetan letra-kantitate bat elkartzen zela ikusi zuten.

6-7 urte	_____	1-2 letra
8-9 urte	_____	1-4 letra
11-12 urte	_____	3-4 letra
13 urte	_____	3-6 letra
14 urte	_____	5-6 letra
Nagusiek	_____	7 letratik gora

Grafoterapiarekin emaitza hauek hobe daitezkeela ikusi izan da:

5 urte	_____	2 letra
7 urte	_____	3-4 letra
9 urte	_____	4-5 letra
12 urte	_____	7 letratik gora

Gorputza eta bitartekariak musikan (eta II)

Ana ETXEBERRIA

Musika irakaslea Burlatako Askatasuna institutuan



A

urreko zenbait gorputza eta hainbat bitartekariz aritu nintzen. Berarek landuz burutu ditudan esperientziak erakustea zen nire asmoa eta oraingoan ere bide horretan jarraituko dut. Burlatako Askatasuna institutuan DBHko ikasleekin landutako esperientzia azalduko dizuet, "Musika eta aldizkariak" izena jarri diodana.

Musika eta aldizkariak

Musika mota ezberdinak entzuteko beste bitarteko bat aldizkaria izan daiteke, batez ere irudiz josirik dauden aldizkariak.

Entzunaldi hauen helburuak asko dira, baina batez ere bi nagusienak aipatuko nituzke:

- Musikak guregan duen eraginaz kontzientzia apur bat esnatzea. Musikkak gure sententzioak, barne sentimenduak, oroitzapenak... nola mugi edo sentiaraz ditzakeen konturaraztea.

- Musika mota ezberdinak ezagutaraztea eta ahal bada, aldi berean, horienganako ateak irekitzea.

Musika entzunaldiak batzuetan lan neketsu bezala hartzen dituzte: orain musikaren forma aztertuko dugu, orain melodiak, eritimoak, instrumentuak... Oraingo lan honek betiko musikaren analisisetatik at, musika beste zentzu batean entzuteko aukera emanen digu.

Lanaren antolamendua oso garbi

ikusten da ikasleei banatzen diegun fitxan (ikus ikasleen fitxa).

Musika eta aldizkarien lan unitate honek gutxienez lau ekintza ezberdin egiteko aukera ematen digu:

- Bakarkako lana.
- Taldeko lana.
- Hitzak irakurtzea.
- Besteen irudiei musikak aurkitzea.

Bakarkako lana

Bakarkako lana, ikasle bakoitzari banatzen diegun fitxa hori garatzea litzateke. Aldiko gehienez hiru bat minutu irauten duten lauzpabost musika aukeratzen ditugu. Musikak zenbat eta ezberdina izan, hobe. Horrela beraien lanetan kontraste handiagoak ikus ditzakegu eta aldi berean, aberatsagoak izango dira. Gomen-



dagarria da, baita ere, entzunaldi horietan beraien gustuko musikaren bat sartzea.

Musika entzunaldia jartzerakoan, hasieran ez diegu esango musikaren izenbururik, askotan izenburuak berak musika entzun aurretik baldintzatzen baikaitu. Izenburuak, guztiak entzun ondoren emango dizkiegu. Hitza bat-batean idazteko azpimarrarazi behar diegu, hau da, hasiera-hasieran beraien-gan sortu duen lehen sentsazio hori idatz dezatela. Irudia eta esaldia musika entzun ondoren aurkitu eta idatziko dute. Batzuetan hitza ez dator bat irudia eta esaldiarekin, baina hitza bat-batekoa da eta irudia eta esaldia gogoeta baten ondorengoak.

Taldeko lana

Oraingo honetan lanaren planteamendua berdina da, baina antolaketa ezberdina. Hasieran bakarkako lan bat bezala hasten gara, baina gero taldean bukatzen dugu. Lehenik, musika bat

jartzen dugu eta bakoitzak bere orrian musika horrek sorrarazten dizkion hitzak edo esaldiak idazten ditu. Gero, bakoitzak berea gela guztiaren aurrean irakurtzen du eta hor entzun diren gai, ideia eta sentsazioen arabera gela taldekatzen saiatzen gara. Talde bakoitzari nahi duen koloreko kartulina aukeratzen uzten diogu eta berriro musika entzunez beraien ideiekin bat datozen argazkiak aurkitzen saiatzen dira. Hauek kartulinetan itsasten dituzte eta bakoitzak duen esaldia, behar bada besteekin birmoldatuz, argazkien inguruan idazten du. Guztia egin ondoren, kartulinaren atzeko aldean musikaren hiru erreferentziak idatz ditzatela. Azkenik, beste taldeek musika berberarekin egin dituzten lanak ikusi eta komentatuko ditugu. Dinamika honen bidez oso garbi ikusten dute pertsonen arabera musika bakar batek zein eragin ezberdinak sor ditzakeen.

Musika eta hitzak

Atal honetan egin beharreko lana oso erraza da, beraien entzuteko jarrera besterik ez baitiegu eskatzen. Oraingo honetan beraien entzundako musiken hitzak edo beste taldeek erabili dituzten beste musika batzuen hitzak erabil genitzake. Azken era honetara eginez, beste hainbat musika ezberdin entzuteko aukera emanen digu. Lana, musika entzuten duten bitartean, hitz horiek poesia edo narrazio baten antzera irakurtzean datza. Azkenik, musika eta hitzak entzun ondoren, guztion artean eztabaidatzen dugu ea egokiak diren edo beraien beste hitzen batzuk jarriko ote lituzketen, zergatik... (ikus hitzen orria).

Musika eta besteen muralak

Lan honetan ere hobe beste taldekoen muralak baliatzen bagara, honela beste hainbat musika ezberdin entzuteko aukera ematen baitigu. Atal honetan mural guztiak zenbatuz gelan zehar banatzen ditugu, eta ikasle guztiak esku artean zer dugun ikusiz, mural guztietatik pasatzen dira. Ondo-

ren mural horiei dagozkien bost musikkak entzuten ditugu. Ikasle bakoitzak papertxo batean musika bakoitzari zein mural egokituko litzaiokeen idazten du. Azkenik, berriro musika guztiak banan-banan entzunez, guztion artean eztabaidatzen dugu zergatik mural bat edo beste aukeratu dugun eta kuriositate modura egileek musika horrentzat zein mural egin duten begiratzen dugu. Aldi berean saiatu ulertzen edo asmatzen zergatik egin duten horrela, zerk bultzatu dituen musika hori horrela adieraztera.

Azken bi ariketa hauek beste zenbait ariketarekin batera "Musika eta irudia" unitate didaktikoaren barnean sartzen ditugu: pilotena (aurreko alean proposatutakoa) beroketa gisa eta aldizkariena musikek sor ditzaketen barne sentsazioez kontzientzia apur bat esnatzeko. Beste hainbat ariketaren artean lan unitate honi amaiera emateko Hik Hasiren 34. zenbakian argitaratu zen diaporama lana lantzen dugu. Oso garrantzitsua da entzunaldi hauek guztiak entzunaldien fitxan edo aurkibidean idaztea (ikus Hik Hasi 34. zenbakia 40. orrialdea) gero diaporama egiteko orduan oso erabilgarria suerta dakigukeelako. Hala ere, ariketa hauek musika ezberdinak entzuteko aitzakia gisa erabil genitzake aldi berean.

Niretzat "Musika eta irudia" lan unitate honen gauzarik aipagarriena zera da: beraien sentsibilitatea eta sentikortasuna irekitzea hainbat musika ezberdinenganako, hau da, ikasleak konturatzea musika batzuk beraien bizitzako egoera ezberdinetan koka ditzaketela, nahiz eta beraientzat agian ez oso gustukoak izan, edo hobe esanda, ez oso ohikoak izan. Eta beraientzat hain atseginak ez diren beste hainbat musika, aurkezten zaizkien (pelikula baten barnean...) edo erabiltzen dituzten (diaporama) moduren arabera, ez direla entzungaitzak, eta aldi berean, erabilgarriak suerta dakizkiekeela. Nolabait ere, musika horiek gizartean leku bat betetzen

MUSIKA eta HITZAK

Hitz hauek 1996-97 ikasturtean Askatasuna Institutuko 3. DBHko ikasleek ondorengo musikei jarriak dira. Begira beraiek musika bakoitza zerekin erlazionatzen duten.

1	2	3	4	5	6	7	8	9
Afrika beltzaranak dibertigarria alaitasuna dantza erritmoa gaztea martxa martxa ona Hawai Sanba Karibea hondartzako garaia eguzkia oporrak uda poza ondo pasa	airea askatasuna bakardadea basoa elkartasuna erlaxazioa Eskozia Eskoziako mendiak familia giro txarra Irlanda isiltasuna istripuak jende behartsua Jesukristo kolore lasaiak kontzentrazioa laguntasuna lasaia lasaitasuna leku lasaia mendia mundua natura oihana pentsamendua pobrezia tristura zoritxarra	aberatsak alaia banda begirada maltzurak dantzaldi ez modernoa elegantzia Errusia estresa ez gustukoa ezjakintasuna festa garrantzitsua guda hotza instrumentuak jendea dantzatzen kategoriko jende nahastea kontzertu bat opera orkestra sinfonikoa erromantzea seriotasuna urduritasuna mehatxua	agresibitatea biolentzia bizitzaren itxura sumendiak bortitza desoreka ekaitza erritmoa espresioa adierazpena gau iluna gaupasa gaztedia gogortasuna gorrotoa hil edo bizi kolpeka hilketak ile nahastuak iskanbila histeria jaia martxa martxa asko martxa gogorra mendi handi eta altuak oso gogorra rock&roll	agobioa aldakortasuna askatasuna buruko mina droga zaletasuna egonezina erokeria eromena erotasuna estasis estresa ezjakintasuna fenomeno arraroak galaxiak hiltzoria hiri handien pilaketa intriga korrika labirintoa lana lorpena nahasketa urduritasuna oso azkarra presa presaka trafikoa	bakardadea bakea balea baso bakartia beldurra zorigaizto erlaxazioa espazioa haizearen hotsa Harley motoa hotza hutsunea intriga lasaitasuna misterioa oihana psikopata suspentsea tristea tristura txoriak	abiadura amaiera arraroa auto lasterketa autopista azkartasuna bideo jokoak buruko mina elektrikoa eromena espazioa extralurtarrak estresa formulako autoa hiriko zarata itsasoa izurdeak jokoa lasterketa modernitatea modernoa hondamena hondamendia ovni zerua	alaitasuna baserria dantzaldia elkartasuna euskaldunen jaialdia Euskal Herria barregura festa flamenkoa folklorea jaiak jendea dantzan martxa martxa ona mutilak neskak panderoa parranda poztasuna saleroa saltsa trikitixa zaharrak	alaitasuna amodioa dantza desafinoa desmadrea erritmoa festak gaupasa kalderete kalejira kanta zaharra kitarra kontzertua hondartza lagun artean maitasuna martxosoa modernoa musika musika ona poza poztasuna txorakeriak egin udda urteak

Hitz hauek, nahi izanez gero, musika entzuterakoan guztiak irakur genitzake edo orden jakin bat emanez batzuk soilik aipatu, adibidez lehenengo zutabea dagoen bezala

Entzundako musikak honako hauek dira:

1. Johnny Clegg & Savuca//Cruel, Crazy, Beautiful world// 2. Cruel, Crazy, Beautiful world.
2. Mikel Errazkin//Bostak arte//4. Negar egin.
3. Brahms//Clásicos divertidos//9. Dantza hungariarra.
4. Anestesia//Independetzia 5 urtez//9. Hilobia lantzen.
5. Philipp Glass// Glass works//4. Rubric.
6. Terry Oldfield//Out of the depths//2. Out of the depths.
7. J.M. Gourand//Musirives//7. Autoroute astrale.
8. Gozategi//Gozategi//9 Nor-Nori-Nork.
9. Egan//Hemen gaude//1. Baikor.



“Niretzat
Musika eta
irudia lan
unitate honen
gauzarik
aipagarriena
beraien
sentsibilitatea
eta
sentikortasuna
hainbat musika
ezberdinen-
ganako
irekitzea da”

IKASLEEN FITXA Musika eta aldizkariak

Bakarkako lana

Behar den materiala

- Irudi asko dituen aldizkaria.
- Orri zuriak.
- Guraizeak.
- Kola.
- Boligrafoa.

Lanaren antolaketa

Musika hainbat mota entzungo ditugu eta entzuten den musika bakoitzarekin lantxo bat egin behar da.

Entzuten dugun musika bakoitzarentzako orri bat hartuko dugu. Orri horretan lau datu agertu behar dira:

- **Zenbakia:** zenbaki bat idatzi, zeinak zenbagarren abestia den adierazten digun. Bere ondoren bi edo hiru lerro libre utzi, entzun dugun musika horren erreferentziak idazteko hurrengo batean.

- **Hitza:** musika hori entzutean bat-batean burura etortzen zaizun lehen bi, hiru, lau, bost hitz idatzi. Hitz hauek edozein motatakoak izan daitezke: sentimenduekin erlazionatuak, sentsazioekin, oroitzapenekin, iritzizkoak...

- **Irudia:** une batez musika entzuten egon ondoren, aldizkaritik aukeratu duzun eta musika horrekin bat datorren argazki bat, bi... itsatsi. Bi argazki aukeratzeko badituzu, bi argazki hauek ez dute zergatik antzekoak izan behar, musika batek bi sentsazio, oroitzapen... ezberdin sentiaraz diezazkigukeelako.

- **Esaldia:** argazki hori edo horiek aukeratzearen arrazoa edo musika horrek iradoki dizuna idatziz adierazi.

Lanaren egitura


1. orria: aurkezpen azala.
2. orria: aurkibidea, non entzun ditugun musika guztien zerrenda agertzen zaigun hiru erreferentzia emanez: musika norena den, diska horren izena eta kantaren titulua.
3. orritik aurrera entzunaldiak beraien zenbaki, hitz, irudi eta esaldiekin.



EUSKAL HIZTEGI ETA ENTZIKLOPEDIAK




84-9173-371-9



84-6012-4096-0




84-401-5377-8




84-9017-290-1



84-604-0107-4




84-901094-0-5



84-39630-05-0



84-901-0166-6



84-497666-09-0



84-4982940-7